

Goienka2a

DANBAKAK
URTEBETEAN
EMAN DITUENAK



KIROLA: KIROLDEGIKO TASAK IGO EGIN DIRA, ARRASATEN GEHIEN /11

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2006ko urtarrilaren 13a • VI. urtea • 227. zenbakia • DOAN BANATZEKO

BERGARA

Euskaldun zahar eta berriak elkartzeko gunea /6



EDURNE IRUIN / KATXALIN ELKARTEA

"Bularreko eta ginekologiako minbizi 300 kasu atzematen dituzte urtero Gipuzkoan" /7

DEBAGOIENA

Bioteknologia arloko Biobide proiektuan dago MCC /4

ASTEKO GAIA: TABAKOAREN LEGEAREN ERAGINA

Lege berriak zalantzak ekarri ditu

Urtarrilaren leian ipini zuten abian tabakoaren legea. Besteak beste, lantegietan erretzeko debekua, tabernetan tabakoa makinetan bakarrik saltzeko obligazioa... jasotzen ditu legeak. Baina oraindik ez dago argi noren esku dagoen legea betearaztea, ezta zer gertatuko den orain arteko tabako paketeekin...

Hori da lege berriak eragin nabarmenena izan duten arloetako ordezkariak esan digutena. Zalantza da nagusi lege berriaren inguruan, eta bakoitza ahal duen neurrian informazioa jaso eta legea betetzen saiatzen da. Botikan, tabako dendetan, tabernetan zein lantokietan zer sumatu duten jakin nahi izan dugu. /2-3

Epeleko araztegia nork egin hemendik hilabetera erabakiko du Madrilek

Epeleko araztegia, Debagoieneko ibai-garbiketa azpiegitura garrantzitsuena, gertu dago adjudikatzeko. Kontratazio Mahaiak Dragados SA enpresa gomendatu dio Sustapen Ministerioari,

eta horixe izango da, seguruenik, irabazlea, baina erabaki ofiziala hemendik hilabete ingurura hartuko dute.

Araztegia egiteko, errepidea desbideratu egingo dute. /4



EDU MENDIBIL

Denak konforme material aukeraketan

Domekan jokatu dute Bergaran Eskuz Binakako bigarren jardunaldia, arratsaldeko bostetan, eta eguazteneko pilota aukeraketan argi geratu zen, besteak beste, Aimarrek eta Xalax dagoeneko gainditu dituztela lehenengo jardunaldian izandako osasun arazoak. Pilota aukeraketan ez zen inongo kezurik egon, guztiak geratu ziren pozik, eta hori ere albiste da. Horrez gainera, bikote banak kontrarioaren saskitik aukeratu zuen hirugarren pilota. Gogoan izan bi bikote horiek ezker-hankarekin hasi dutela txapelketa. Argazkian, ezkerrean, Aimar Olaizola eta Oier Zearra agertzen dira; eskuman, Yves Xala eta Fernando Goñi. /11

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETAN 1950 • 2006 ARRASATE

ARETXABALETAN
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETAN

ARRASATE
ALTZARIAN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARETXABALETAN
COCINA INTEGRAL
Mitarre 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETAN

ARETXABALETAN
MUEBLAS
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETAN

Harrituta utzi nahi dituzu zure txikiak?
Har ezazu une bat...
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak izango dituzte.

Arkautz zure etxea da.

ARAMAIO

AHTko lurren desjabetzea bat-batean hasi dute

Abiadura Handiko Trenaren lanak lehenbailehen hasi nahi dituzte. Hala, abenduaren 28an argitaratu zuten Aramaion desjabetu behar dituzten lurren zerrenda, eta oso epe laburra utzi dute alegazioak egiteko: hain zuzen ere, bihar, zapatua, bukatzen da epea. Hala ere, aurkeztu egingo dituzte alegazioak. /6

DEBAGOIENA

Langabezia %1,33 igo zen ibarrean 2005. urtean

Abenduan, 1.817 lagun zeuden INEMen izena emanda Debagoienean, %5,86ko langabezia tasa. 2004ko abenduan baino %1,33 altuagoa da tasa hori. Joera hori Gipuzkoako joera orokorraren aurkakoa da, lurraldean, oro har, langabezia asko jaitsi delako: epe berean, %6,74 jaitsi zen tasa. /4

DEBAGOIENA

AP-1 autobideko Arrasate-Eskoriatza zatiko lehen harria

Gaur, egubakoitza, ziren ipintzekoak AP-1 autobideko Arrasate-Eskoriatza zatiko lehen harria, Aretxabaletan, GI-627 errepideko sarbidean, autoeskolako instalazio zaharretan. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, eta Nestor Arana, Bidegiko Zuzendari Nagusia, ziren etortzekoak.

Tabakoaren legea, zalantza ke artean

Tabakoaren legeak zuzenean eragiten dien alorretako ordezkariak ez dituzte gauzak argi

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ke arteko egunak akabo. Hala dirudi, behintzat, tabakoaren legea indarrean sartzearekin bat egin dituzten kanpainei erreparatuta. Lege berriak eragina izango du, besteak beste, lantokietan, tabernetan, tabako dendetan zein farmazietan.

Urtarrilaren 1etik aurrera, lantokian ezin da erre eta, gainera, jatetxeek eta tabernek ere irailerako egin beharko dituzte aldaketak lege berrira egokitzeke. Izan ere, 100 metro koadrotik gorako tabernekin erretzaileendako gune berezia egin behar dute. Hortik beherako tabernetan, jabeak erabaki beharko du erretzaileak onartuko dituen ala ez.

Legea abian jarri orduko zalantza keak agertu dira hainbat esparrutan: tabernarien artean, tabako dendetako jabeen artean, lantegietan, eta erretzaileen artean zer esanik ez.

Lege berri horrek eragin zuzena duen esparruetara jo dugu eragina zenbaterainokoa izan den jakiteko.

ESTANKOAK Kexu dira informazio gutxi jaso dutelako

Kontxi Laskurainek tabako dendak du Antzuolan eta, esan digunez, igarri du lege berriaren eragina: "Lehendik ere tabakoaren salmentak pixka bat jaitsita zeu-

den. Enpresetan erretzeari uzteko ikastaroak egin ziren, eta horren eragina nabaritu genuen. Orain, laga edo ez laga zebiltzandako, legea aitzakia izan da erretzeari uzteko".

Gipuzkoako tabako saltzaileek bilera egingo dute bihar, zapatua, gai horren gainean berba egiteko. "Esku orri bat iritsi zaigu hainbat arau bete behar ditugula esanez; esaterako, 18 urtetik beherakoei ezin zaiela tabakorik saldu dion kartela agerian ipintzeko. Bestalde, argibide hori paketeek ere izan behar dute. Epe bat ipini digute eta handik aurrera ezingo dira saldu ohar hori ez duten kaxak. Beraz, saldu gabe dauzkagun kaxekin zer gertatuko da? Epea luzatu behar lukete edo bestela pakete berrikin aldatu", esan digu Kontxik.

Baina oraindik asko dira zalantzak. Kontxiren esanetan, "informazio gutxi eman digute zuzenean eragiten digun sekto-

reoi. Medioetan kanpaina handiak egin dira, baina benetan jakin behar dugunok ez ditugu gauzak argi".

Bestalde, azken egunotan beste gauza bitxi bat ere sumatu du Kontxik: "Tabako kartoiak papelean biltzeko eskatzen digu jendeak, lehen ezkutatzeko inolako beharrik ikusten ez zutenean".

Legearen eragina hasieran salmentetan igarriko dela uste du Kontxik, "baina, luzarora begira, legea betez gero eta isunak ipiniz gero, erretzearen kontua asko jaitsiko da urte batzuetan".

FARMAZIAK Jende gehiena informazio bila joaten da

Botiketan ere sumatu dute lege berriaren aplikazioa. Jendeak erretzeari uzteko gogoia edo beha-

rra azaldu du eta horretan lagunduko dioten sendagaien bila joan ohi dira farmaziara.

Juan Antonio Irizar botikaria da Arrasaten, eta haren esanetan, "jendea galdetzera etortzen da: ea erretzeari uzteko zein metodo dagoen, zenbaterainoko eraginkortasuna duten... Ondoren, batzuek erosi egiten dituzte. Txikleak eta partxeak daude, batetik, eta erretzarekin erosi behar diren pilulak, bestetik".

Azkenaldian jende gehiago joan dela igarri dute: "Nik neuk botika hauetan ez dut askorik sinesten, nahiz eta baduten euren eragina. Nire ustez, norberaren buruan egon behar da erretzeari uzteko nahia. Partxeek, txikleek eta pilulek tabakoaren nikotina ordezkatzeko dute eta pixkanaka desintoxikatzen lagundu. Laguntza eman arren, ordea, ez dira botika miragarriak, garrantzitsuena motibazioa da, duda barik", esan digu Irizarrek.

Hala ere, eta botikari bezala baino gehiago, herritar bezala, tabakoaren legearekin egiten ari direna gehiegizkoa dela esan digu Juan Antoniok: "Erretzaile asko tabakoa uztera baino amorruez gehiago erretzera eramango ditu. Gizartea kontrolatzeko nahi hau gehiegizkoa iruditzen zait".

TABERNAK Taberna gehienek erretzaileendako lekua izatea hautatu dute

Antton Elortza oñatiarra, tabernaria ez ezik, Gipuzkoako Ostalarien Elkartearen presidenteordea ere bada. Herrietan batzarrak egiten ari dira gaiaren gainean, tabernariari argibideak emateko.

Elortzaren esanetan, "Oñatin 100 metro koadrotik gorako tabernak oso gutxi dira; beraz, legeak ez du eragin handirik izan. Taberna gehienetan erre daiteke, gutxi edo, akaso, inork ez du ez erretzaileen taberna izatea hautatu.

Anttonek tabernan sumatu du erretzaileek ez dutela aukerarik galtzen zerbait esateko. "Beste batzuek, ordea, galdetu egiten dute ea erre daitekeen. Erretzaileak mentalizatuta daude horrekin", esaten du.

"Luzera begira, nik uste dut leku guztietan debekatuko dutela tabakoa erretzea. Hau pauso bat baino ez da, jendea mentalizatzeke eta hezteko", esan du Antton tabernako jabeak.


Eusko Jaurlaritzan ere nahasmena

Martitzenean elkartu ziren Osasun Ministerioako ordezkariak kontseilarietara tabakoaren legearen gaineko erabakiak eta kriterioak bateratzeko. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ez ziren batzarrean izan.

Lege berria abian jarri arren, zalantza handiak daude baita Eusko Jaurlaritzan bertan ere. Besteak beste, gaiak Industri, Merkataritza eta Turismo Sailari, Osasun Sailari, Herrizaingo Sailari, Etxebizitza

eta Gizarte Gaitararako Sailari eta Lan Sailari eragiten die besteak beste. Oraindik ez dago argi zein betebeharrak dituen sail bakoitzak lege berriaren aurrean; beraz, bakoitzaren lana zehazteko Droga Gaietako zuzendaritzatik txosten bat eskatu dute eta aurki esku artean izatea espero dute.

Bestalde Osasun eta Kontsumo ministerioak telefono bat ipini du herritarrei tabakoaren legearen gaineko zalantzak argitzeko: 901 44 54 45.



ION LEIHOAK


P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73





Tabako marka aukera zabala egon arren, tabako dendetan sumatu dute salmenten jaitsiera.

IRATI AGIRREAZALDEGI



Farmazietan nikotinadun txikleak, partxeak eta pilulak saltzen dituzte.

UBANE MADERA



Tabernetan, makinan baino ezin da saldu tabakoa; puruak eskura ere sal daitezke.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ISUNAK Tabakoaren legea aplikatuz lehen atxiloketa egin dute Nafarroan

Castejonen gizonetzko bat atxilotu dute, debekatutako eremuan erretzen ari zela ohartarazi zioten polizia aurre egin zuelako. Atxilotu eta 240 euroko isuna jarri zioten. Zenbait mediotan esan dute EAEn oraingoz ez dutela isunik jarriko, ez dagoelako argi gaia zein saili dago-kion. Eusko Jaurlaritzatik, ordea, ezeztatu egin digute hori. Euren esanetan, salaketarik egonez gero, erantzun-go diote, baina oraingoz ez da izan.

EUSKARA 'Hemen erretzea dago' esaldia Eusko Jaurlaritzaren txarteletan

Erretzaileei ez ezik, euskarari ere egin dio kalte lege berriak. Eusko Jaurlaritzaren arabera, erretzea baimentzen duten tokietan jarri beharreko txarteletan hau idatzi behar da: *Hemen erretzea dago*. Euskaraz ez da oso modu jatorrean idatzitako esaldia, eta izan da tabernan txartel ofizialaz gain bestelako oharrik ipini duenik; Bergaran, esaterako, *Erre leike* kartela ikusi dugu taberna bateko atean.

BERGARAKO UDAL PILOTALEKUA Pilota enpresaburuak kexu dira, ez dietelako azalpen argirik eman

Lege honen aurrekoa da kirol instalazioetan ezin dela erre esaten duena. Bergarako Udal pilotalekuan, ordea, orain arte erre da, eta baita lege berria abian jarri ostean ere.

Aspe pilota enpresako Patxi Mutiloak esan du legea ezagutzen duela baina inork ez diela azaldu debekua nork betearazi behar duen. Isunak jartzen hasi aurretik egokitze epe baten beharra ikusi dute pilota enpresaburuak.

Tabernariongan izan du eragina lege berriak. "Taberna gauza askotatik bizi da: ardotik, pintxoetatik... Baita tabakotik ere; beraz, guretzat kalte ekonomikoa etorriko da. Azken urteotan, pixkanaka, tabakoaren kontsumoa beherantz etorri da, baina diru apur bat beti uzten du; eta hori kenduz gero, diru iturri bat gutxiago izango dugu".

LANTOKIAK Enpresaburuak elkarteak esanda, zorrotz bete dute lege berria

Gipuzkoako lantegiek zorrotz bete behar dute legea. Adegik enpresari elkarteak gomendioa egin du ez onartzeko erretzaileei lantokian erretzen; izan ere, utziz gero, isunak jasotzeko arriskua izango lukete.

Ibarrean langile gehien dituen Fagorrek hitzez hitz bete du legearen esana. Ez dute salbuespenik egin; beraz, langile erretzaileek euren atsedeen tarteak aprobetxatu behar dituzte zigarroa erretzeko.

Beste zenbait lantokitan, komunera joateko tarte erretzeko aprobetxatzen duenik bada, eta oso larri egonez gero, batzuei baimena ere ematen zaie erretzera joateko, betiere lantokitik kanpora.

Denda edo bulegoetako atean, kalean erretzen ere sumatu dugu bat baino gehiago urtea hasi denetik. Beste batzuek, kalean erretzearen lotsaz, denbora tarte luzea pasa dute erre gabe.

Legea dela-eta bilerak egin dituzte tabernariak, eta tabako saltzaileek bihar egingo dute

Lantegietan derrigorrez hartu dute ez erretzeko erabakia; Adegik ere hala gomendatu du

URKIOLA
Barrenkalea 13. 943 76 16 48
BERGARA

% 50 eraino



UBANE MADERA

Inguru horretan egingo dute Epeleko araztegia.

Epeleko araztegia adjudikatzeko gertu dago, lanak udan hasteko

Kontratazio Mahaiak Dragados enpresari ematea gomendatzen du

LEIRE KORTABARRIA

Epeleko araztegiako lanak hemendik hilabete ingurura adjudikatuko ditu Espainiako Sustapen Ministerioak. Hala ere, Kontratazio Mahaiak egin du zeini adjudikatu gomendioa, eta seguruenik, Dragados SA enpresari emango diote.

Epeleko araztegia da Deba ibai-ko garbiketa sareko azpiegitura garrantzitsua, eta Gipuzkoako garrantzitsuenetakoa bat ere. Hala, Espainiako Sustapen Ministerioak egingo du. Hemendik hilabete ingurura adjudikatuko ditu lanak, Felipe Romanek, Iparraldeko Ur Konfederazioko lan horien ingeniari arduradunak dioenez. Epeleko bidegurutzeko inguruan egingo dute, Arrasate-ko noranzkoan, Roneo pabilioia-

ren bukaeran. 26.286.511 euroko aurrekontua dago, eta Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko hiri-urak eta industrieta-ko urak garbituko ditu. Hala, 86.000 biztanlerendako prestatuta egongo da.

Iparraldeko Ur Konfederazioaren arabera, "uda inguruan" hasiko dira lanak, eta lau urteko epea izango dute bukatzeko: hiru urte eta erdi lanek, eta urte erdi martxan jartzeko.

Lanak hemendik hilabetera emango dituzte, eta 26 milioi euroko aurrekontua izango dute

ERREPIDE DESBIDERAKETA

Lan konplexuak dira. Araztegi-az gain, Oñati erreko kolektorearekin lotura egin behar dute. Horren kolektorea Zubillagan dago. Lotura-hodiendako tunela egin behar dute mendian zehar: 1.375 metro luze eta 3,75 metro diametro izango da.

Horrez gain, lanen ondorioz, Bergaratik Arrasatera doan errepide zatia 350 metrotan desbideratu beharko dute, mendiari gerturatu.

Araztegia bera bi gunekoa izango da, autobiderra doan bide zatiak banatuta.

Ur-kalitate maila oso altua emango du Epeleko araztegiak, goi-ibar batera isuriko dituelako urak. Materia organikoaz gain, beste hondakin mota batzuk ere garbituko ditu, eta lokatza tratatzeko sistema izango du.

Biobide bioteknologia proiektuan parte-hartze handia du MCCk

Biobideren helburua da botiken ikerketa alorrean erreferente izatea

L.K.

MCCk 600.000 euroekin eta bere teknologiarekin parte hartzen du Biobide proiektuan. Botikak egiteko bioteknologia ikerkuntza proiektu anbiziotsua da Biobide. MCC alor estrategiko berri baten sartzan da era horretara.

Joan den astelehenean aurkeztu zuten Donostian Biobide enpresa proiektua. Horren helburua da mundu osoan bioteknologia arloko erreferente bihurtzea eta Eus-

kadin sektore hori bultzatzea, enpresak eta lanpostuak sortuta. Bere ezaugarri nagusia da botika berriak egiteko prozesua automatizatu egingo duela, neurri handi baten. Horrek prozesu hori laburtu eta merkatu egingo du. Beste berezitasun bat da zebra-arraina erabiliko dutela esperimentuetarako, bere genoma giza-kiarena oso antzekoa delako.

MCC parte-hartzaile nagusietako bat da. Hain zuzen, proiektuko bazkide estrategiko bat da, eta hasierako 3,3 milioi euroko kapitalek 600.000 euro

ipini ditu. Robotika eta automatizazio jakintza ipiniko du, eta ibarreko kooperatiba eta ikerkuntza zentro batzuek modu zuzenean parte hartuko dute. Automatizazio alorreko lanak MCCk koordinatuko ditu.

SEI LANGILE

Biobideko beste sortzaileak Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Genetrix dira. Egoitza nagusia Miramonen izango dute, eta Javier Pagaegi izango da zuzendaria. Sei langilekin hasi dute jarduna.

Langabezia 1,33 puntu igo zen ibarrean 2005. urtean

Abenduan, 1.817 lagun zeuden INEMen izena emanda

LEIRE KORTABARRIA

Langabezia tasa 1,33 puntu igo da Debagoienera 2005. urtean, 2004ko abenduko datuarekin alderatuta: hain zuzen, %5,86ko langabezia tasarekin bukatu dugu urtea; guztira, 1.817 lagun. Hala ikusten da INEMeko datuei begiratuta.

Joan den abenduan, Debagoienera 1.817 lagun zeuden INEMeko langabezia zerrendan izena emanda. Horrek %5,86ko langabezia tasa ematen du. 2004ko abenduko datuekin alderatuta, langabezia igo egin dela esan nahi du horrek: orduan 1.404 langabe zeuden izena emanda, %4,53ko langabezia tasa.

Herrika, Arrasatek du langabezia tasa altuena: %6,62 (2004an, %5,23). Segidan, Bergara dago (%6,24; 2004an, %4,79).

Langabezia tasa baxuena Gatzagak du, %3,01, hain zuzen ere.

Joera hori Gipuzkoako kontrakoa da: lurraldean, 2004an baino 745 langabe gutxiago zeuden 2005eko abenduan (%6,74an jaitzi zen langabezia tasa).

INDUSTRIAN, ESKAINTZARIK EZ

Arrasateko INEMeko ardura-dunen esanetan, oso lan eskaintza gutxi dago, eta ehiena ostalaritza, garbiketa... arloetan da, ez industria arloan.

Ibarreko joera ez dator bat Gipuzkoakoarekin: oro har, langabezia asko jaitzi da




'Atzoko eta Gaurko Gudariei Omenaldia' jaia

Atzoko eta Gaurko Gudariei Omenaldia izenez, ospakizuna egin zuten Debagoienera eta inguruko hainbat lagunek joan den domekan, urtarrilaren 8an, Intxortan. Hain zuzen, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Elorrioko jendeak parte hartu zuen, guztira 70 bat lagunek. Mendira igoera egin zuten eta, goian, trikitilarien emanaldia, txalaparta eta salda jana egin zituzten; segidan, ekitaldi politikoa eginda bukatu zituzten mendiko ekitaldiak. Bukatzeko, triki-poteoa egin zuten Elgetan.

laster eraikitzeko

**Errioxako Ribas de Tereson
11 etxe atxikiak**

Toloño mendiaren magalean



Labastidatik 4 Km.
Gasteiztik 30 min.
Arrasatek 60 min.
Donostiatik 90 min.

ikuspegi paregabeak

62
80

informazioa

679 25 19 33

Merkealdiek asko erakartzen jarraitzen dute, dendarien esanetan

Ibarreko erosleak ondo informatuta daudela esaten dute merkatariek

LEIRE KORTABARRIA

Urtarrileko merkealdiek, sasoi baten bezala ez, baina oraindik indar handia dute eta jendea erakartzen dute. Hala esaten dute egunotan horiekin lanpetuta dauden Debagoieneko dendari batzuek. Merkealdi garaia hilaren 7an hasi zen.

Merkealdiek eragin handia izaten jarraitzen dute, Debagoieneko dendarien esanetan. Batik bat, jantzi-dendetan sumatzen da eragin hori.

Dendaren arabera, beherapena handiagoa edo txikiagoa izaten da. Oñatiko Chic dendako Irma Juaristik, adibidez, %30-50 arteko beherapena ipini du, eta "batez ere lehenengo egunetan, asko igartzen da; beherapen txikiagoak direnean, ez hainbeste". Jende askok merkealdia aprobetxatu eta bina kamiseta edo fraka pare erosten dituela dio Irmak.

Bergarako Urkiola dendako Jasone Olañeta arduradunak esaten duenez, "ez da garai batean moduan, baina oraindik jendeak galdetzen du noiz hasten diren, eta itxaron egiten du begiz jotako arroparen bat erosteko". Egun hauetan, denda horretan jertse barik geratu dira merkealdietan.

Beste denda batzuetan, merkealdiek indarra galdu dutela diote. Arrasateko Zeziaga dendan diotenez, "jendeak beharra dagoenean erosten du". Eurek lan handiagoa dute egunotan Gabonetako opariak aldatzera joaten zaialako jende asko. "Oso egun zailak dira, lan handikoak", diote.



Irma Juaristi denda-jabea, merkealdian dituen produktu batzuk erakusten.

AHOLKU BATZUK

Merkealdietan erosteko, informazioa ezinbestekoa da. Debagoieneko erosleek badute hori, Bergarako Zubikua dendako Arantxa Muruamendiaratzek dioenez: "Jendeak badaki zer eta

nola erosi, eta oso ondo prestatuta dago". Argibideak behar dituztenendako, Kontsumo Zuzendaritzak aholku batzuk eman ditu.

Hala, merkealdia noiz hasi eta noiz bukatzen den zehazki adierazi behar du dendariak. Merkealdian ezin dira saldu lehendik merkaturatu ez diren produktuak, ez eta akatsak dituztenak ere. Horrez gain, merkealdian dauden produktuak bereiztu egin behar dira gainerakoetatik, eta etiketan lehengo eta oraingo prezioa adierazi behar dira. Tiketa edo faktura gordetzea komeni da, erreklamatu egin behar bada ere.

*Komeni da erosketa
tiketa edo faktura
gordetzea,
erreklamazioak egin
behar badira ere*

Goienaren 2006ko merkataritza gidak banatzen hasi dira ibarrean

Urtarrilaren amaierarako herri guztietara iritsiko dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Asteon hasi du Goienak 2006ko merkataritza gidan banaketa, eta urtarrilaren amaierarako bukatuko dute. Telefono partikularren zerrenda jaso ez badute ere, bestelako informazio gehigarria izango dute aurtengo gidek.

Arrasateko gida Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Aramaion banatuko dute, guztira 11.500 ale.; 6.500 ale Bergaran, Antzuolan eta Elgetan. Oñatin, berriz, herrikoa bertakoa banatuko dute, 3.200 ale guztira.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Aurtengo gidak ez du telefono partikularren zerrenda jasoko. Hala ere, baditu zenbait eduki berri: dendariendako aholkula-



Guztira hiru gida izango dira: Arrasatekoa, Bergarakoa eta Oñatikoa.

ritza zerbitzua eta dirulaguntzak eskuratzeko bideak; guardiako farmazien egutegia eta Euskal Herriko kode postalak.

Etxean gidak jaso ezean, bi bide daude eskatzeko: telefonoz deituta (943 71 23 91) edo e-posta bidez: gida@goiena.com.

Ibarreko gazte sozialisten idazkaria aukeratu dute

Aritz Arrietak bete du urte askotako hutsunea

U. MADERA / L. KORTABARRIA

Urte askotako hutsunearen ondoren, Debagoieneko gazte sozialistek ordezkaria dute. Hain zuzen, joan den astelehenez geroztik, Aritz Arrieta arrasatearra da herri horretako eta ibar osoko gazte sozialisten idazkari nagusia.

Azken urteotan hutsik egon den postua bete du orain Aritz Arrieta 28 urteko arrasatearra: joan den astelehena ezkerro, hura izendatu dute Arrasateko gazte sozialisten idazkari nagusi, baita Euskadiko Gazte Sozialisten Komiteko kide ere. Bere helburua Arrasate eta Debagoiena direla esan du Arrietak. Izendapen horrekin batera, informazio kanpainari ekin diote ibar osoan.

BAZKIDE GEHIAGO EGITEA

Helburu bat kide berriak lortzea da: "Ibarrean bakarra naiz, bai-



Aritz Arrieta.

na espero dut poliki-poliki beste herrialdetako gazteak hona hurbiltzea", dio.

Kezketako bat etxebizitza dute, eta helburua da "gazteak ibarrean geratzea". Lanari dagokionez, prekaritatearen aurka egin gura dute.

Ibarreko zinegotzi sozialistekin elkarlanean jardungo dute.

DEBAGOIENEAN LABUR

Hiltegirako eta autobus zerbitzuetarako partidak Gipuzkoako aurrekontuetan

Aralarren ekimenez, 2006ko Gipuzkoako aurrekontuak debagoiendarrondako interesgarriak izan daitezkeen diru partidak jaso ditu. Horren berri eman zuen alderdiak egunean, Bergaran. Aralarrek ezezkoa eman dio aurrekontuari, baina Batzar Nagusiek Aralarrek aurkeztutako hainbat zuzenketa onartu egin ditu. Besteak beste, Zubillagako hiltegiaren berregituraketa bermatzeko 50.000 euroko dirulaguntza sortuko da; eta Foru sareko autobus zerbitzuetan 200.000 euroko partida bonobus sistema ezartzeko. Bestalde, Aralarrek zenbait gaitan partidak igotzeko proposamena egin zuen; esaterako, euskararekin lotutako partidak. Euskarari dagokionez, 420.000 euroko igoera lortu da.

Hizkuntza Politika Sailak 500.000 euro eman dizkio Tokikori, iazkoaren hirukoitza

Tokikok, euskarazko lekuko telebisten elkarteak -GOITB barne-, 500.000 euro jaso ditu Hizkuntza Politika Sailaren eskutik, iaz baino hiru aldiz gehiago. Joan den martitzenean, hilak 10, batzartu ziren bi aldeak, eta hori izan zen emaitzetako bat. GOIT-Brendako beste lorpen garrantzitsu bat izan zen Aramaio GOIT-Bren seinale digitala jasotzeko barrutian sartzeko aukera: hain zuzen, telebista digitaleko baimenak barrutika emango dira, eta Aramaio, hasieran, ez zuen GOITBren barrutian sartzeko eskatzeko aukerarik, baina Eusko Jaurlaritzak oso jarrera ona erakutsi zuen hori aldatzeko.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •



- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Depilazioa laser bidez •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ANTZUOLA

Toponimiaren gaineko liburuaren aurkezpena laster egingo dute

Antzuola Herria Ikerketa Bekari esker, Kristina Pavok herriko toponimiaren gaineko azterketa egin zuen iaz. Ikerketa horren emaitza, liburua, esku artean dute dagoeneko Udaleko arduradunek. Hala, oraindik ez dute datarik zehaztu, baina, adierazi digutenez, datozen asteotan egingo dute liburuaren aurkezpena.

Herriko mendi, lursail, iturri, auzo eta bestelako hainbat tokiren izenak zehazten dituzte ikerketa lan horretan. Mapa bat ere argitaratuko dute, tokiak kokatu ahal izateko. /A.I.



ARRASATE

Iritzi eskubidea nahi dute Bai Udalatz plataformako kideek

Bai Udalatz plataformak mendi horren barruan egin nahi duten harrobiari erabateko kontraktasuna erakutsi dio. Martitzenean prentsaurrekoa egin zuten eta, besteak beste, Arrasateko Udalaren eta, bereziki, alkatearen jarrera gogor kritikatu zituzten. Esaterako, salatu zuten orain dela urtebete eskatu ziotela Udalatzeko harrobiaren gaineko informazioa, eta oraindik ez dutela erantzunik izan. Salatu zuten, baita ere, Udalaren azken osoko bilkuran alkateak ez zuela onartu ezta gaia eztabaidatzerik ere. Eta halako proiektu erraldoi baten aurrean, herriarrek iritzia emateko eskubidea izan beharko luketela ere esan zuten. /U.M.

ARAMAIO

AHT eraikitzeke lurren desjabetze prozesua abiarazi dute bat-batean

Abisatu barik, abenduaren 28an argitaratu zituzten AHT egiteko Aramaion desjabetuko dituzten lurren zerrenda, eta jakinarazi zuten urtarrilaren 24an egingo dituztela okupazio aktak. Hala, 15 eguneko epea besterik ez diete eman lurjabeen (12, guztira; zortzi Aramaioakoak) alegazioak egiteko. Eta epe hori bihar, zapatua, bukatuko da. Lurjabeek jakinarazi digute, larri dabilzan arren, badabiltzala alegazioak prestatzen. Udalak ere aurkeztuko dituela esan digute, besteak beste, informazioa falta dela salatzen. /U.M.

ELGETA

Udalak begiralea behar du asteburuetan gazte lokalean lan egiteko

Udala 11 eta 16 urte bitarteko gazteendako lokala zabaltzekotan da. Eta hantxe asteburuetan lan egiteko begiralea kontratatu nahi du. Urtarriletik maiatzera bitartean, zapatu, domeka eta jaiegunetan egingo du lan, arratsaldean. Zapatuetan 77,70 euro kobratuko ditu eta domeka eta jaiegunetan 97,15 euro. Baldintzak dira begirale moduan esperientzia izatea, 18 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea. Izena emateko udaletxera jo dezakete interesatuek, edo telefonoz deitu: 943 76 80 22. /A.

OÑATI

Otsailean zozketatuko dituzte Ugarkaldeko lehen etxebizitzak

Otsailean zozketatuko dituzte Ugarkalden egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzak. Zozketaren gaineko oinarriak udaletxean daude ikusgai hila-ren 18ra arte. Alegazioak aurkezteko epea ere egun horretan bukatzen da. Urtarrilaren 19an, eskatzaileen zerrenda eskatuko dio Udalak Etxebideri, eta eskuratzen duenean ikusgai jarriko du 15 egun, alegazioak aurkezteko. Horiek guztiak egin ostean, data jarriko diote zozketari.

Oñatiko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko, hiru baldintza bete behar dituzte eskatzaileek: Etxebiden izena emanda izatea iazko azaroaren 30a baino lehen, Oñatin erroldatuta egotea azken bi urteetan, eta eskatutako diru sarreraren baldintzak betetzea. Baldintza horiez gain, eskatzaileek ezingo dute aurrez etxebizitzarik izan. Hala ere, onartuko dituzte etxea erabat zahartuta dagoelako

bota beharrean dutenen egoera, desjabetutako etxeak izatea edo 36 metro koadro baino txikiagoan bizi direnen eskaria.

75 ETXEBIZITZA

Sukia eraikuntza enpresak egingo ditu Ugarkaldeko etxebizitzak. Lehenengo fasean, babestutako 75 etxebizitza egingo dituzte lau bloketan banatuta. 54 hiru logeladunak dira, 17 bi logeladunak eta lau ezindu fisiokoendako gertatutakoak. Garajeak eta trastelekuak ere eskainiko dituzte etxeekin batera. Dagoeneko lanean dihardute makinak lursaila hondeatzen. /M.A.

Zertzelada

Urtarrilaren 19an eskatuko dio Udalak eskatzaileen zerrenda Etxebideri, eta 15 egun erakutsiko du alegazioak aurkezteko

ARRASATE

Berriketan, euskaldun zahar eta berriak elkartzeko gunea

Euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartzeko, Berriketan egitasmoa abiarazi dute Udaleko Euskara Zerbitzuak, Jardun elkarteak, AEK-k eta Udal Euskaltegiak. Berriketan aurkezteko mahai-ingurua izango da eguaztenean kultura etxean, 19:00etan. Dagoeneko antzeko egitasmoak jarri dituzte abian, besteak beste, Arrasaten, Elgoibarren eta Lazkaon, eta horietan parte

hartzen ari diren zenbait lagun etorriko dira eguazteneko aurkezpenera. Era berean, euskaltegiaren ibiliko ikasleei Berriketan egitasmoan parte hartzeko gonbidapena bidali diete. Lagun artean kafetxo bat hartuz, euskarazko antzerki emanaldi bat ikusiz edo mendi irteerak eginez euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek euskaraz jardutea da helburu nagusia. /E.M.



Udaleko eta euskaltegiako ordezkariak prentsaurrekoan.

ARETXABALETAKO

Enplegu zentroa zabalduko dute Aretxabaletako institutuan

Otsailean, Enplegu zentroa zabalduko dute Jaurlaritzaren laguntzarekin. 2003an Enplegurako Orientazio Zerbitzua, Lanbide, jarri zuten abian lan bila zebiltzanean laguntzeko; 900 lagunetik gora pasatu da hiru urtean. Orain, Enplegu zentroak orientazio zabalagoa emango die bezeroei. Ordenagailu gela Internetekin eta eguneroko prentsa izango dituzte zentroan; orientazioan espezializatutako langile baten aholkuak ere jasoko dituzte. Horretarako esperientziadun pertsona behar dute; interesatuek bidali curriculumak instituturara. /M.A.

ESKORIATZA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abiarazi du Udalak

Udalbatzarrak onartu egin du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Hortaz, plan hori abiarazteko, Udalak 2009ra bitarteko plan estrategikoa diseinatu du.

Horrekin lotuta, onartutako plana herriko eragile guztiei aurkeztuko die otsailean, eta horiek guztiak gonbidatuko ditu euskaratze prozesuan eginbeharrak hartzera.

BENITOREN SARRERAK AGORTUTA

Bestalde, Udalak jakinarazi du gaur, egubakoitza, Benito Lertxundik emango duen kontzerturako sarrerak agortu egin direla. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Saharara eramango dituzten jostailuen sailkapena egingo dute egunotan

Erakuts diezaiozun Olentzerori Saharako bidea lelopean, opariak batzen ibili dira Labidea dendan. Mordoxka batu dituzte, eta jostailu horiek sailkatu egingo dituzte orain. Besteak beste, kontuan izan behar da pilak dituzten jostailuek ez dutela luze iraungo Saharan.

ASTELEHENEAN IKASTAROA

KZgunean ikastaroa egingo dute astelehenean, *Zure seme-alabak babestu* izena duena. Umeak Interneten komeni ez den lekuetan sar ez daitezten erakusteko. /X.U.

Bularreko eta ginekologiako minbiziagatik sortu zen Katxalin elkarte. Donostian du egoitza, baina elkarteko kide bat astero etortzen da Arrasateko Emakume Txokora, Debagoieneko gaixoei eta senideei laguntzera.

OIHANA ELORTZA

Ze zerbitzu eskaintzen du Katxalin elkarteak?

Ez da zerbitzu medikoa. Bi zatitan bana daitezke eskaintzen dituen zerbitzuak: informazio eta arreta zerbitzua, batetik, eta laguntza psikologikoa, bestetik.

Bularreko zein ginekologiako minbizia duen emakumearen egoera erabat berria da gaixo dagoela jakiten duenean. Saiatzen gara, medikuak ematen dion informazioaz gain, gaixotasunari buruzko datu gehiago ematen: zein tratamendu dauden eta tratamendu horiek izango dituzten ondorioak; ilea erortzen bazaie eta ileordea behar badute, ileordeen gaineko informazioa ematen; bularreko protesiaren inguruan jakin behar direnak azaltzen, eta Osakidetzak ze prestazio eskaintzen dizkion esaten, besteak beste. Horrekin batera, laguntza psikologikoa ere ematen dugu, banaka nahiz taldeka. Kurtsoak eta tailerrak ere antolatzen ditugu.

Zerbitzu guztiak dira bularreko zein ginekologiako minbizia duten emakumeendako.

Bietatik zein dago hedatuena?

Ez dut uste bata bestea baino hedatuago dagoenik. Esaten da emakumeen hilkortasun tasa handiena bularreko minbizia dela, baina ez dut daturik.

Hala ere, guk, adibidez, bularreko minbizia dutenekin egiten dugu lan, batez ere. Badirudi ginekologiako minbiziak ez dela horrenbesteko kalte fisikorik egiten, eta beharbada emakume horiek psikologikoki ere ez dute horrenbesteko laguntzarik behar izaten.

Zenbat emakumek dute Gipuzkoan, gutxi gorabehera, bularreko edo ginekologiako minbizia?

Urtero 300 kasu berri atzematen dituzte. Gehienak Osakidetzako programetan atzematen dituzte. Horregatik da garrantzitsua plan horrek eskaintzen dituen errebisioak egitea. Bestalde, datuek diote kopuru horren %15 inguru emakumeak berak atzeman dituen minbiziak direla, autoesplorazioen bidez. Ginekologoaren errebisioak bezain garrantzitsuak dira autoesplorazioak.

Adinak badu zerikusirik bularreko zein ginekologiako minbizia izateko?

Ez. Osakidetzako programak 50 eta 64 urte bitarteko emakumeak hartzen ditu. Badirudi arrisku handien tarte horretan dauden emakumeek dutela, ikusten dutelako kasu gehienak adin eremu horren barruan gertatzen direla. Baina gero eta kasu gehiago agertzen ari dira gazteagoak edo zaharragoak diren emakumeetan. Beharbada, 69 urtera arte luzatuko dituzte Osakidetzak bi urtean behin egiten dituen errebisioak. 50etik 45era jaistea ere eskatu zen, baina badirudi igo bakarrik egingo dutela adina, ez jaitsi.

Zergatik?

Errebisio horietan erabiltzen duten praktika mamografiak dira eta badirudi 45-50 tarte horretan mamografia ez dela teknika zehatzena minbizia atzemateko. Emakumea oraindik hormonalki puntu gorenean dago tarte horretan, eta ez ei



OIHANA ELORTZA

Edurne Iruin

KATXALIN ELKARTEKO KIDEA

“Bularreko edo ginekologiako minbiziko 300 kasu berri atzematen dituzte urtero Gipuzkoan”

GIZONEZKOETAN ERE BAI

“Gizonezkoek ere izan dezakete minbizi mota hori; Gipuzkoan atzematen diren 100 kasuetatik bi edo hiru gizonezkoengan atzematen dituzte”

EGUAZTENETAN ARRASATEN

“Eguazten goiz guztietan etortzen gara Arrasateko Emakume Txokora, gaixoei zein senideei laguntzeko eta informatzeko; Debagoieneko edonor etor daiteke guregana”

da gero bezain ondo atzematen minbizia dagoen edo ez.

Zer egin behar dute 50-64 adin tartean sartzen ez diren emakumeek?

Nork bere kontu egin behar ditu errebisioak. Gomendatzen da errebisio ginekologiko bat egitea urtero, 18 urtetik aurrera, eta ginekologoak berak aholkatuko die noiz egin mamografia. Eta, noski, autoesplorazioa hilabetero.

Noiz eta nola egin behar da autoesplorazioa?

Bular ingurua ukitzea da, berez, autoesplorazioa. Hilerokoa duten emakumeek, hilekoa etorri eta bosgarren egunean egi-tea komeni da; dagoeneko hilekoa ez dutenek, berriz, hileko egun bat hartu behar dute horretarako.

Garaiz atzematen dute bularretako minbizia?

Gero eta garaizago. Gipuzkoan, 50 eta 64 urte bitarteko emakumeen %80 joaten dira Osakidetzak egiten dituen azterketak egitera.

Zeri izaten diote beldurra?

Minbizia berbak berak ematen die lehenengo beldurra, heriotzarekin lotzen dugulako automatikoki. Gero datoz bularreko kantzeko beldurra eta tratamenduen ondorioei dieten beldurra.

Zer moduzko zerbitzuak daude Euskal Herrian minbizia mota horiek tratatzeko?

Interbentzioak, medikuak zein tratamenduak onak dira hemengo ospitaleetan ematen dituztenak, eta ez dago inora joan beharrik. Ikerketak ere aurrera doaz eta gero eta gehiago dakigu gaixotasun horiei buruz.

Badaude aurreikuspen faktoreak? Jakin daiteke emakume batek beste batek baino aukera gehiago dituen ala ez bularreko minbizia izateko?

Esaten da bularreko minbizia izateko aukera gehiago dituela umerik izan ez duen emakumeak, erretzen duenak edo gizona dagoenak. Hala ere, ez dira faktore zehatzak, edonork izan dezake.

Heredatzen da?

Ez dela hereditarioa diote, baina aurre-disposizio genetikoa dagoela ikusten da kasu batzuetan, batez ere amaren aldetik baldin badatoz.

Gizonezkoek ere izan dezakete bularreko minbizia?

Bai, eta badaude bularreko minbizia duten gizonezkoak, gainera. Gipuzkoan, adibidez, atzematen dituzten 100 kasu bakoitzetik bi edo hiru gizonezkoengan atzematen dituzte.

Berria da datua ala gizonezkoetan ere beti egon dira?

Bai, beti. Gutxi gorabehera berdintsua da datua denboran zehar. Emakumeen kopuruak aipatzen dira gehienetan, gehiago direlako, baina gizonezkoek ere badute minbizi hori. Gainera, emakumeen tasa igotzen ari da. Lehengo emakumearen batez besteko bizi iraupena 60 urtean zegoen, adibidez, eta oraingoa berriz, 80an. Beraz, zenbat eta urte gehiago bizi, orduan eta aukera gehiago ditugu denok mota guztietako gaixotasunak izateko. Eta gizonezkoetan berdin gertatzen da.

Kopuru horiek, dena dela, nolakoak dira beste herrialde batzuetakoekin konparatuz gero?

Parekoak. Badaude kasu gutxiago eta baita gehiago dauden herrialdeak ere, baina erdi mailan gaude gu.

Bestalde, hemengo osasun zerbitzua oso ona da munduko edozein osasun zerbitzurekin konparatuz. Diagnostiko zehatzak lortzeko teknika eta tratamenduak egokiak dira eta teknologia eta ikerketa arloetan ere aurreratuta gaude. Ez gara iristen, beharbada, AEBen parera, baina oso maila altua dugula dudarik ez dago.

Non du egoitza Katxalin elkarteak?

Donostian dugu, baina bi delegazio ditugu Gipuzkoan: Arrasaten bata eta Azpeitian bestea. Arrasatera neu etortzen naiz astero astero eta Azpeitira beste lan-kide bat joaten da.

Noiztik zator astero Arrasateko Emakume Txokora?

Arrasatera eguazten guztietan etortzen gara, Emakume Txokora, 10:00etatik 12:00etara: 943 79 41 39. Duela bi urtetik hona gatoz astero.

Nor joan daiteke zuengana?

Egoera berri honetan dagoen edozein emakume. Arrasaten gauden arren, Debagoien osoko emakumeak nahiz senitarteak etor daitezke. Kosta egiten zaio jendeari horrelako zerbitzu batera etortzea laguntza eske, lotsa duelako, agian, baina laguntzeko eta informatzeko gaude. Askotan senitarteak ere laguntza handia behar dute. Adibidez, ez da berdin bi ume txiki dituen emakume gazte batek izatea bularreko minbizia edo bere bizitza bideratuta duen 64 urteko emakume batek.

Gutunak

Jon Agirrerri 92.
artikulua ukatu diote

Jon Agirre Aramaion jaio eta Arrasaten bizi zen Euskal Preso Politikoa da. Lau hilabete barru 25 urte egingo ditu espetxean eta orain dela 12 bat urte bete zituen espetxe zigorraren hiru laurdenak. Jonek 63 urte ditu eta gaixotasun ugari, horietako batzuk bihotzekoa izateko arrisku handikoak. Galindo, Vera (azken honek depresioa omen du, ja, ja...) kalean daude. Ion ez haserretu horiekin konparatzeagatik, badakigu bi polo desberdinetan zaudetela: horiek, nahiz eta kalean egon negatiboan, eta hi positiboan, jakina. Baina justizia denentzat omen da berdina...

Batzuetan justizia badagoela sinetsi nahi izaten dugu eta borrokan jarduten dugu bidezkoa den zerbait lortzeko. Gero, errealitatearekin egiten dugu topo eta honek ederki erakusten digu menperatzaileek beren legean ere ez dutela sinesten eta zigorra bere muturreraino eramaten dutela. Horrela bestela ezin da ulertu Jon Agirrerri aurka hartutako erabaki politikoa judiziala.

Joni, 92.artikulua, gaixo larriak dituztenei aplikatzen zaien artikulua, ez diote aplikatuko eta beraz, ez dute askatuko. Jonen abokatuek aurkeztu zuten txosten luzeari eta horren barne Donostia ospitalean egindako txosten medikoari, ezezkia eman diote hamar lerro inkoherente, ulergaitz eta amorragarritan. Guk gutxienez behin eta berriz irakurri ditugu eta ez dugu ulertzen. Beraz, lerroz lerro hona ekartzea pentsatu dugu eta jatorrizko hizkuntzan: *A estos efectos, y teniendo en cuenta que el Código Penal establece como requisito indispensable para la concesión de la Libertad condicional que el interno se encuentre clasificado en 3º grado de tratamiento penitenciario, señala el art. 104.4 R.P. que "los penados enfermos muy graves con padecimientos incurables, según informe médico... podrán ser clasificados en tercer grado de tratamiento penitenciario..." No consta que los Servicios médicos del centro hayan emitido informe alguno en este sentido. Por el contrario, en el día de la fecha el interno se encuentra clasificado en 1º grado de tratamiento penitenciario, art. 91.2 R.P. si bien esta clasificación fue suspendida, por razones médicas, en fecha 02-06-05.*

Lerro hauetan esaten da artikulua hori aplikatzeko hirugarren graduan egon behar duela eta Jon lehen graduan sailkatuta dagoela. Gainera, espetxeko zerbitzu medikoek ez dutela egin inolako txostenik eta hori beharrezkoa dela. Guri galderra simple bat bururatzeko zaigu: Zaintza Epaitetik zergatik ez dute eskatu txosten medikoa espetxera? Edozein modutan, hurrengo lerroetan esaten du lehen graduan sailkatuta dagoela, nahiz eta arazo medikoak direla, bertan behera gelditu den sailkapen hori. Zertan gelditzen gara orduan? Lehen graduan dago edo bertan behera gelditu da sailkapena? Espetxeko zerbitzu medikoek ez badute egin inolako txosten medikorik, non oinarritu ziren lehen graduako sailkapena bertan behera gelditzeko? Ez da izan behar oso argia konartzeko kontraste handiak daudela hamar lerro horietan.

Erabaki judiziala edo erabaki politikoa? Estatu espainolean denok dakigu bi estamentu horiek erabat lotuta daudela. Zergatik sortu zuten Audientzia Nazio-

nala? Beranduago Zergatik Espetxeko Zaintza Epaitetik Audientzia Nazionalean? Garbi dago: erabaki judizialak ere politikoki erabat kontrolatzeko. Garai berriak omen datoz, baina Espetxeko Zuzendaritza Zaintzan eta atzetik dagoen Gobernuan borondate gutxi dagoela iruditzen zaigu. Har ezazue erabaki zuzena eta har daitekeen bakarra: Jon askatu!

Jon ez balitz izango preso politikoa aspaldi egongo zen kalean, baina guk ezin dugu ezezkorik onartu eta gure esku dagoen guztia egingo dugu erabaki hori alda dezaten. Justiziarik ez dago, jakina, baina esperientziak erakutsi digu borrokatuz gauzak lor daitezkeela. Guk orain arte bezala bide horri helduko diogu.

Kartzelako egonaldia egun batez bakarrik laburtzeak ere gure ahalegina merezi du; nola ez lehenbailehen kaleratzeak, berarekin justizia eginez.

Animo, Jon!

JON AGIRRE HERRI EKIMENA
Arrasate

Udal(atx) plenoa

A benduaren 26ko goizeko 10ak dira, eta Audaletzetik atera berri naiz, nire bizitzako lehenengo plenoa ikusi ondoren. Hitz batekin laburbildu daiteke: tristura. Sentimendu hau irakurleak uler dezan, ondorengo datuok idazten ditut, ahalik eta objektibotasun handienarekin.

1.- Plenoaren hasieran, zinegotzi, alkate eta udal langileez gain, 15 bat pertsona gaude aretoan.

2.- Plenoa hasi eta 10 bat minutura iritsi da PPko zinegotzi bat, eta bere lekuan eseri.

3.- Handik beste 5 bat minutura koardila handi bat sartu da aretoan, eta nahiz eta isiltasunean sartu, pauso eta ateen hotsak bere eragina du. Sartu bezain laster, eseri eta isiltasuna nagusi da, nahiz eta komentario batzuk noizbehinka azaldu jende artean.

4.- Eguneko ordena aurrera doala, Aralar talde politikoko zinegotziak aretoa utzi du, bere erabakiz (arraroa iruditzen zait zinegotzi batek pleno bat erdian utzi eta alde egitea, bere arrazoiak izango ditu...).

5.- Plenoan zehar, zenbait puntu eztabaidatu eta bozkatu dira, 13. puntura heldu arte. Alkatea puntu hori jorratzen hasi baino lehen, jende artean pertsona batek hitza eskatu du.

6.- Alkatearen erantzuna: "Pertsona bakar batek hitz egin ahal izango du". Ondoren jendearen protestak erabaki honegatik.

7.- Protesten ondoren, pertsona honek adierazpen bat irakurri du, erdaraz, salatu gobernua honek Udalatzen zuloa egitearen kontu gutzian izan duen "oscurantismoa", non zinegotzi batzuek GOIENKARIAN jakin duten horren berri. Baita ere plataformaren informazio eskarri egin zaion tratuari buruzkoa, non 2005eko urtarrilean egindako eskakizunari ez zaion erantzunik eman, legez 2 hilabeteko epean eman beharrekia izan arren.

8.- Pertsona honen adierazpenarengatik jakin dut alkateak eguneroko ordenatik Udalatxi buruzko puntua kendu egin duela. Azkenean, bi hitzekin definitu du alkate honen jarrera: "Despotismo ilustratua".

9.- Pertsona honen ondoren, beste pertsona batek hartu du hitza (mikrofonoa eskaini eta hartu du). Honek galdera bakar eta zuzena egin dio alkate jaunari, erantzun dezan eskatuz: "Zergatik kendu du alkate jaunak Udalatxi buruzko puntua eguneko ordenatik?".

10.- Alkatearen erantzuna, ordurako bere aulkitik jaikita eta alde egiteko moduan: "Alkatearen erabakiagatik".

11.- Protesta, txistu eta insultuen artean, beste pertsona bat bere adierazpena egiten saiatu da, mikrofonoa eskuan duela, baina egiten hasi orduko PNV-EAJ eta EAKo zinegotziek utzi egin dute aretoa. Kanpora bidean, baten batek Udalatx Ez Ikutu dioen zimurtutako paper bat bota eta alkatearen aurpegian jo du.

12.- Plenoan bertan geratu diren zinegotziak PP, IU-EB eta PSE-PSOEkoak dira. Protesten artean, pertsona batek (pertsona?) arrautza edo antzeko bat bota du atzealdetik, gutxienez bi zinegotziri emanez (IU-EBkoa eta PSE-PSOEkoa nire ustez).

13.- Orduan hasi dira liskarrak geratzen ziren zinegotzien eta jendearen artean, bata bestearen amez oroitzera inokoa.

14.- Gehiago ezin izan dut jasan, eta kanpora atera naiz, aurretik adierazi dudana sentimenduak barrena betetzen zidala: tristura.

Nola leike herriak aukeratu duen ordezkari batek, ekitaldi ofizial baten, herriak egin nahi dizkion galderei ez erantzutea? Nola leike norbaitek herriak aukeratu eta plenoan bertan geratu den ordezkari bati arrautza bat botatzea?

Alkate jaunari eskaera bat: nire ustez, Udalatxi buruzko auzi hau ez da udal gobernua bakarrik kudeatu beharko lukeen gai bat (ikusituz, gutxienez 3.000 sinadura daude proiektuaren kontra), kontsentsu eta erabaki zabalagoa beharko lukeen bat baizik. Mesedez eskatzen dizut kontsulta zabal bat egitea, eta herriari proiektu honi buruzko xehetasunak eskaintzea, ahalik eta informazio gehienarekin, nor bere iritzia izan dezan.

Eta noski, proiektu hau udalbatzan eztabaidatzen denerako (ze nire ustez noizbait eztabaidatu beharko baita), zuri, alkate jauna, herriari bere hitza adierazten utzi eta errespetatzea eskatzen dizut, zinegotzietan beraiekin postuan mantentzen daitezela herriari erantzuteko, eta herriari, ager daitezela eztabaidatzea honetara, bai proiektu honen aldekoak eta baita kontrakoak, baina mesedez, eztabaida zibilizatua izateko, ez batak besteari bereak eta bi esateko.

ASIER AGIRREURRETA ETXENAGUSIA
Arrasate

2006. urterako
asmo onak

Beste urte bat gehiago pasatu da. Gabonetan, familiakoekin egon, lagunekin oso momentu onak pasatu eta asmo onak betetzeko hitza emanda hasi dut 2006. urtea.

Lehenengo egunean emakume gazte bat hurbildu zitzaidan eta ea "gospel" berriro ekarriko dugun galdetu zidan. Esan zidan kultura programazioan "mugi-

mendua" dagoela eta, oso pozik zeudela bera eta bere lagunak.

Horrek iraganeko mamuak gogorarazi zitzaizkidan eta, bide batez, idazteko gogoia edo, nire aldetik, gauza batzuk garbi uzteko nahia. Agian, idatzi honek erantzunak izango ditu baina nik, honekin, hasi eta bukatu egiten dut gaia.

Guk ere sormen lana nahiago dugu. Ikusi besterik ez dago Izaskun Murgia elkarte lirikoak (urteroko "zartzuela" antolatzen duena, 200 herritarretik gora parte hartzen duten ikuskizuna) bi urte hauetan dirulaguntzan izan duen gehikuntza edo 2004-2005 urteetan sortu diren kultur talde berriei ere emandako babes. Betiere auden kultur taldeei emandako laguntza murriztu gabe. Are gehiago, ezohiko ikuskizunak antolatzeke asmoarekin etorri direnean, gure laguntza izan dute (askotan gastuaren %100 Udalak bere gain hartu duena). Orain bai, edozein administrazio ordenatutan gertatu behar den moduan, dirua zertan gastatu den justifikatu behar da, diru hori publikoa den neurrian. Eta hori da dirulaguntza jasotzen duten entitate guztiei jarri diegun baldintza. Talde batzuek kontrolatzeko asmoarekin nahastu dute hori. Haiek jakingo dute zergatik.

Eta horren guztiaren erantzuna Udalak antolatzen dituen ekintzetan parte ez hartzea izan da. Batzuek, "jaiak herrikoiak" ez diren aitzakiarekin ("herriko hitza talde batzuei atxikita balego bezala), eta "ez daukagu parte hartzeko ohi-turarik" aitzakiaz, beste batzuek.

Guk ere sormen lana nahiago dugu eta, horregatik, babes ematen diegun kultur taldeengana jotzen dugu, lehenengo, gurekin parte hartzeko eskatuz, eta haien esku geratzen da jaiak, "herrikoia" izan edo ez.

Sormen lana esaten dugunean, emankorraz eta positiboaz ari gara eta ez burla egiteko kartelei, pegatinei eta herria zikintzen duten esaldi ilustratuei buruz. Horiei sormen lana ere deituko diete batzuek eta gero harritu eta kezkatu egingo dira, eskoletan 11-14 urteko neska-mutikoen artean "mobina" dagoela jakiterakoan.

Nire 6 urteko iloba oso haserre etorri zitzaidan egun batean eta esan zidan: "Tia, ikusi dut kartel bat, eta burla egiten dizute. Eta burlarik ez da egin behar, ezta? Gero joan eta kenduko dugu, bale?". Nik harro esan dezaket nire iloba ondo hezten dutela ikastolan eta etxean, balo-reetan oinarritutako hezkuntza jasotzen ari dela. Ez dakit herritar guztiek berdin esan dezaketean.

Diruarekin "ikuskitzuna" ekarri daitezkeela esaten dutenei zera esango diet: kultura programazioa handituzerakoan ez diegu zentimorik kendu herritarrengandik sortu diren ekimenei, alderantziz, batzuk handitu egin ditugu. Egia da "kanpoko" ikuskizunak ekartzen ditugula. Batzuek "atzeritarrak" deituko dizkiete, baina horietariko zenbat ez dira joan, behin baino gehiagotan, Balmaseda, Bilbo, Gasteiz, Santo Domingo edo Olliteira, holakoak ikustera? Eta zeinek ez dauka lagun bat edo lagun baten laguna, ezauna... AEBetan egon eta Harlem-eko gospel ikuskizuna ikusi eta liluratuta etorri ez dena? Hori esaten dutenetariko zenbat ez dira joaten, noizbait, hiriburuetara, antzerki, opera, jazz, musika klasikoa...edo, hitz batean esanda, ikuskizun on bat ikustera?

Guk nahi duguna, neurri apalean, noski, zera da: kanpora joan ezin diren herritarrei horrelako ikuskizunak herrian bertan ikusteko aukera ematea, besterik ez.

Bukatzeo hizkuntzarekin lotutako esaldi bat etorri zait burura eta nik kulturara egokituko nuke:

“Herri bateko kultura ez da galtzen kanpoko ikuskizunak ekartzeagatik, herriko taldeek jaietan herriko kultura, ohi-turak...zabaltzen laguntzen ez dutelako baizik.”

Asmorik onenak 2006. urterako opa nahi dizkizuet herritar guztioi

INES ALDAI ORUNA

Euskara eta Kultura Sustapeneko zinegotzia
Arrasate

Ez da adin kontua, errespetu kontua baizik

SUDCeko 24ko arratsaldean gertaturiko eta erabatean zuek ere bertako protagonista izan zineten gertaera xume baina adierazgarri baten berri eman nahi nizueke.

Ondoren kontuak atera eta kritikoak izan zaitezte ardura eta errespetu apurrik gelditzen bazaizue. 18:45ak ziren Musakolatik Olentzero ikustera atera ginenean. Aspalidiko Gurea zinemaren parean komitibaren musikarekin topo egin genuen. Ilusioz eta pozarren itxaron genion Olentzerori, txikienek batez ere.

Hamar urteko gure alaba, adin bereko eta sei urteko beste lagun birekin, bere etorreraren zain egon zen; pasieran Olentzero agurtu eta gozokiak eskatzeko eskuak luzatu zituzten. Horrelakoetan (danborrada etab.) sarri ibiltzen den eta herrian aski ezaguna den komitiba burua zaku batetik ateratzen zituen gozokiak banatzen ari zen. Hura sorpresa hiru neskek gozokiak ukatu zizkienean hartu zutena! Gaztelania garbian adiera baitzien: “Vosotros sois mayores para que os dé caramelos”. Sei urteko Ainhoak bakarrik jaso zituen lau goxoki eta berak banatu zituen bere lagunekin.

SUDCeko jaunok, zer gertatzen zaizue? Adinean edo errespetua izatean dago hemen gakoa? Nire ustez, errespetuak lehentasuna du beti.

Arrasateko Udaletxe txit agurgarriko jaunok, egun horretan Olentzero ikustera aterako zinetela espero dut, antolakuntzaren eta emaitzen balorazioa egin dezazuen. Ez daukat hitzik!

Noizko boterera ohiturakoaren prepotentziatik barik, gogobero eta herri partaidetzatik antolaturiko gure Olentzero bat?

MONTSE DELGADO

Arrasate

Zenbat irudipen amets dezakezu...

Zenbat irudipen amets dezakezu zuk ba iduzu gura... Hauek dira *Katuak Txisteran* abesten dituen lehen bertsoak *Seussen Mundua* musikalean. Edozein antzezlaneko zuzendari artistikoaren kargua lan gogorra da baina, burutu berri dugun moduko musikal batean, askotan egoerak gaintitu nauela sentitu dut sortzen joan diren zailtasunengatik. Hala ere, oso pozik nago gure ametsa nola joan den ikusita eta parte hartu duten pertsona guztiek egindako lanarekin.

Lehen lan garrantzitsua ingelesetik hitzez hitzeko itzulpena egitea izan zen; Nere Amaia Zabala izan zen lan hau egiteko ardura izan zuena eta azkar eta zehaztasun osoz burutu zuen. Gero Rosa eta Blanca Narbaiza ahizpek itzulpen lana egin zuten. *Seussen Mundua* testuak prosa (errazago itzultzeko eta egokitze) gutxi duen musikala da, hogeita hamar abesti baino gehiago ditu eta ia bi ordu batzen ditu partituran, eta gaia zailtzeko, zati asko errezitatiboak dira. Rosa eta Blankak jatorrizkoari leiala zitzaion testu dibertigarri eta musikari primeran egokitutakoa lortu zuten. Libretoarekin lan bikaina egiteaz gain, musikaren muntaiaren prozesuan Narbaiza ahizpak proiektuaren martxa onerako ezinbestekoak izan dira. Beti guztian laguntzeko prest, testuak behar zituen zuzenketa guztiak egin dituzte azken momentura arte. Blankari bereziki eman behar dizkiot eskerrak Euskalduna Jaurregiko kontrol mahai erraldoian erregidore moduan egindako lanarengatik: tentsio handienetako momentuetan, ezinbestekoa gertatu zen agerraldi guztien azken emaitzak onak izateko.

Formatu handiko musikal baten, ehun eta hogeita pertsona eszenatikian, erabili beharreko produkzio baliabideak ikaragarriak dira: estrukturak, dekoratu, atrezzo, jantziak... Produkzio arduraduna Amaia Marko izan da, lana bikain betez, alor honetan duen eskarmentua primeran erakutsiz; izan ere, *Oliver!*-en edo *San Martinen Estanpa*-n besteko ardura izan zuen. Gai hauen koordinaziorako Estibaliz Alkortaren laguntza izan dugu. Antzerki muntaietan eskarmenturik ez izan arren lanerako izugarritzko gaitasuna eta atrezzo eta dekoratuak eraikitzekeo talentu handia erakutsi ditu. Amaia eta Estibalizek, gainera, luxuzko laguntzaile talde bat izan dute: Julen Alberdi, Miren Azkarate, Arantza Ibarzabal, Cristina Gallastegi, Ione Etxeberria, Idoia eta Isabel Juldain, Fran Martinez, Lierni, Rosa eta Blanca Narbaiza. Anekdotan moduan komentatuko dut: Euskaldunako zuzendari teknikoak hain harrituta geratu zen euren eraginkortasunarekin, auditorioan lan egiteko kontratatzekeo aukerarekin ibili zela txantxetan.

Producciones Serranoren jabeak eszenatokia Jose Luis Raymond-ek diseinatu zuela eta animalien karakterizazioa Kukubiltxo taldeak egingo zuela esan zigunean, nik, literalki, ez nuen sinistu proposamena egia bihur zitekeenik. Kukubiltxo, nire seme-alabekin zenbait muntaia ikusteaz ezagutzen nituen eta, batez ere miresten ditudan Oskorrerekin egindako kolaborazioengatik. Kukubiltxoren lana liluragarria izan da eta guri guztiz ezezaguna zitzaigun atal bat ezagutzeko aukera eman digu, txotxongiloak nola eraiki eta maneiatu. Baina batez ere, talde garrantzitsu honetako partaideek giza kalitateari eta antzerkirako maitasunari buruz asko erakutsi digute. Bereziki azpimarratu beharra daukat Tarziren lana, egiturak eraiki zituen Iñaki Etxeandia eta nola ez, Josu Kamara artista handiaren lana.

Musikalen munduan ohikoa da konpainia deitzea obra eszenan jartzen duen taldeari. Seussen Munduko konpainiaren oinarria Bergarako Orfeoia izan da. Nire koruko partaide guzti-guztiak zoriondu beharrean aurkitzen naiz, ez baitago talde guztien eskura musikal bat egiteak suposatzen duen lana, hogeitik gora solistaren interbentzioak eta kororako zati benetan konplexuak. Gainera, Gaberotik, Orfeoien kanteratik, gertuago egoteko aukera izan dut eta, gaztetasuna eta kalitate handiko ahotsa eman duten balore berriak hautemateko aukera izan dut. Arrate Bengoa eta Orfeoiko zuzendaritza ezinbestekoak izan dira antolakuntzan sortuz joan diren arazo ugariak konpontzeko.

Konpainiako haurrak Bergarako Musika Eskolako hogeita hamar umetik gora izan dira. Ia hogeit urte daramatzat bergarako antzerki-musikalen muntaietan laguntzen, 1989ko San Martzialen Estanpatik gauza asko gertatu dira baina, beti izan dut zentro honetako zuzendaritza, ikasle eta irakasleen laguntza. Musikal honetan, familiartekoa gehienbat, ikasleen ekarpen oso garrantzitsua izan da, funtsezkoa izan da ere Seussen Munduko haurren koruko zuzendarien lana, aldi berean, hauek izan dira solisten kantu irakasleak. Bereziki, Oihane Toledoren lana azpimarratu beharra daukat, muntaia honetan gogotsu aritu den urretxuar bat. Musika Eskolari esker ere, lehen mailako musikari talde bat izan dugu eskura. Broadwayko Seussical obraren orkestazio berarekin, musikari talde hau primeran konpondu da partitura aurrera ateratzen; izan ere, eskarmentu handiko irakasleak direla erakutsi dute eta, hauetatik batzuk, Bergarako Bandako Orkestra Sinfonikoko zein rock, jazz eta beste musika estilo desberdinetako instrumentistak dira. Ezin dezaket gure zuzendari David Azurzaren lana aipatu gabe utzi, koruko abeslari eta zuzendariaren ohiko lanetatik desberdina den obra honetako elementu guztiak maneiatzen. Oso ondo moldatu baita.

Seussen Mundua-k guretzat suposatzen zuen berrikuntzarik handiena hau

zen: bere estilo eta formatuagatik Broadwayko ohiko musikal bat zela. Gure aurreko musika-lanak: *Miserableak* eta *Oliver!* Londresko West End-eko estreinaldiak dira, operarekin gehiago erlacionatutako estiloan. Musikal berri honek koreografia eduki handiago bat eskatzen zuen. Erronka hau gaintitzeko giltza Alicia de Cesar izan zen. Ariznoa Gimnasia Erritmikoko entrenatzaile ohi hau astebururo etorri da Iruñetik, entsegu saio sinestezinak eginaz. Alicia goizeko hamaketan entseatzen hasi eta gaueko zortziak arte jarduteko gai den ezagutzen dudan pertsona bakarra dela esango dut bakarrik. Dedikazio honi esker, Elena Herresoren laguntzaz, konpainiako partaide guzti-guztiak dantza egiten duten ikuskizun bat osatzea lortu du, eta hau guztia apaintzeko, eszenatokia plastikotasun eta edertasunez bete duten dantzariak edukitzeko aukera izan dugu: Uxue Arregi, Amaia Arrieta, Ane Miren Fernandez, Saioa Garitano, Nerea Mendizabal, Amaia Ortiz de Urbina eta Izargi Vega. Gehienak Aliciaren ikasle ohiak.

Eskerrak eman nahi dizkiet *Seussen Mundua*-rekin kolaboratu duten familia guztiei. Kolaborazio hau borobiltzeko, azken momentuan, tramoia mugitzen lagundu zigun ama talde bat izan genuen. *El Diario Vasco*-k euren lana goraiatu zuen (hau inoiz ez dut ikusi opera edo musikalei buruzko kritiketan). Baina meritua, hein handi batean, eszenatikoko errejidoreek dute: Lierni Narbaizak eta Arantxa Ibarzabalek.

Seussen Mundua moduko musikal batek suposatzen duen talde-lan harrigarria laburbiltzen saiatu naiz. Txisterako Katuaren hitzetara itzuliko naiz, jende askoren laguntza gogotsu eta desinteresatuari esker, eta Producciones Serranoko arduradun nagusiak ahaztu gabe, Jose Angel, Josune, eta beste bulegokideak azken finean proiektu honen ardatza, zuzendari artistiko moduan egin dudana lanak amets bat betetzearekin zerikusi handia dutela azpimarratzeko.

Euskalduna Europako eszenatik onenetako bat dela diote, ziur naiz bertatik pasa diren zuzendari eszeniko guztiak ni baino hobekak direla baina, ziurta dezaket ere, inork ez duela izan nik moduko taldea, izugarritzko giza kalitate, kalitate artistiko eta profesionalarekin.

Seussen Mundua-ko ekipoaren ilusiorik handiena obra berriz Bergaran estreinatzea da. Orfeoiko kide ohi batek esaten zidan: “Karpa bat jartzea eskatuko dugu behintzat...” Espero hainbestearaino heldu beharrik ez izatea, baina gusatuko litzaidake gure proposamenak erantzun positibo bat izatea. Benetan uste dut musikal honek merezi duela eta Bergarako publikoak ere.

VALEN MOÑUX

Seussen Mundua-ko zuzendari artistikoa
Bergara

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ERREDAKTORE BURUA
Leire Kortabarría

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta
Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Pilates metodoa eta boleibola euskaraz

Domeka baino lehen aurkeztu beharko dira kirol fitxak egiteko proiektuak

XABIER URTZELAI

Domekan amaituko da euskarazko kirol materiala sortzeko beken deialdia. Hala, aurtengoa 16. edizioa izango da. Domekan aurkeztu beharreko proiektuek Pilates metodoa eta boleibola izan beharko dute jomuga. Helburua da modan dauden kirolak euskaraz egiteko baliabideak jartzea.

Iratxe Aranburu Arrasateko kirol teknikariaren esanetan, kirola euskaratzearen ahaleaginean, azken urteotan modan jarri diren kirolekin lan egitea izan dute helburu. Hau da, euskarazko fitxa horiek gaur egun jendeak egiten dituen kirolekin eguneratuta egon daitezela. Horregatik aukeratu dute aurten azkenaldian horren ezagun egin den Pilates metodoa: "Iaz aquagym-arekin egin genuen moduan, aurten ere jarduera berriekin lan egiten saiatu gara, eta horregatik aukeratu dugu Pilates metodoa. Horrekin batera, tradizio handiagoa duen beste kirol bat aukeratu dugu, boleibola".

HIRU MILA EUROKO BEKA

Fitxa horiek egin gura dituenak domeka baino lehen aurkeztu beharko du proiektua Bergarako udaletxean. Irabazleak hiru mila euroko beka eskuratuko du, eta lau hilabete izango ditu Pilates metodoaren eta boleibolaren gaineko euskarazko fitxak egiteko. Gero, fitxa horiek Durangoko azo-



Irabazleek 3.000 euroko beka irabaziko dute fitxak egiteko. Argazkian, 2004. urteko irabazleak, fitxen aurkezpenean.

"Kirol fitxak eguneratuta egon daitezen ahalegintzen gara; horregatik aukeratu dugu Pilates metodoa"

kan aurkeztuko dituzte, irakasle, ikasle edo gurasoek erabiltzeko.

FITXAK INTERNETEN

Kirola Euskaraz egitasmoaren

"Gaztetxoaren gurasoendako euskarazko materiala egin dugu, eta kirola zein ona den azaltzen da bertan"

berritasunetako bat da 1993az geroztik egin diren kirol fitxak Interneten daudela eskura. Diputazioaren webguneak ematen du horretarako aukera: [www.gipuz-](http://www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz)

koa.net/kirolaeuskaraz. Hala ere, paperezko edizioak ez dituzte alde batera utziko.

Kirola euskaraz egin daitekeela sentsibilizatzearekin batera, kirola bera zein onuragarria den azaltzeko ere materiala egin dute: "Eskola Kirolean dabilzan umeen gurasoei zuzendutako materiala egin dugu, euren seme-alabendako kirola egitea zein onuragarria den azaltzeko. Helburua gurasoetan eragitea da, umeen eredu direlako".

Kirolabur

FUTBOLA/PREFERENTEA

Aloña Mendik etxetik kanpo-ara hasiko du bigarren itzulia, Orion, zapatu arratsaldean (16:00). Aretxabaletak eta Mondrak, berriz, etxean jokatu dute. UDAK hiru puntu gutxiago baino ez dituen Mutriku izango du domekan bisitari (16:30). Mondrak zapatuan jokatu du (15:45) taularen erdian dagoen Hernaniren kontra.

PILOTA/BERRAONDO

Haritz Berraondok bi urtera-ko sinatu du Garfe enpresarekin. Antzuolako pilotariak abenduaren 4an utzi zion Aspeko pilotari izateari. Kontratua amaitu zitzaion, eta Eibarko enpresak egin zion eskaintzarekin konforme ez, eta orain arte enpresa barik ibili da. Orain, Errioxako enpresarendako ibiliko da jardunean.

ERRUGBIA/ETXEAN

Arrasateko Errugbi Taldeak Abiar arratsaldean jokatu du Garagartzan, Arratiako zekorren kontra (16:00). Horrekin batera, gazte mailakoak Eibarraren lehiatuko dira, bihar arratsaldean (15:00).

A. FUTBOLA/KANPOAN

Eskoriatzako kirol-zaleek saskibaloiarekin gozatu beharko dute asteburuan, areto futbolleko talde guztiek kanpoan jokatu dute-eta. Lehen Nazional Mailan dabilen Eskoriatzak Allerru-Algeposa taldearen kontra jokatu du, Lezon. Eskoriatzakoek orain estutu behar dute, atzeko postuetatik aldentzeko.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otorra
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Kiroldegi gehienetan KPIren araberrako igoera ezarri dute

Arrasateko kiroldegia da salbuespena, %7ko igoerarekin

XABIER URTZELAI

KPIren (IPC) igoera oinarri hartuta jarri dituzte ibarreko kiroldegi gehienetan prezioak. Arrasateko kiroldegia izan da prezioak gehien igo dituen, eta horrek eragina izan du Debagoieneko txartel bateratuan. Egun bateko sarreragatik 5,35 euro ordaintzea neurrigabea da.

Ibarreko kiroldegietako zerbitzuak berdinak ez diren neurrian, prezioak ere bestelakoak izan behar. Hala, arrasatearrak izango dira poltsikoa gehien urratu beharko dutenak kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeko.

18 urtetik gorakoek kiroldegiko edo igerilekuko abonua erabiltzearen 103 euro ordaindu beharko dituzte, eta 154,45 euro abonua plusa aukeratzen dutenak (kiroldegia gehi igerilekua). Aukera horrengatik joan den urtean baino 10 euro gehiago ordaindu beharko dituzte, eta iaiz baino 15,85 euro gehiago abonua familiarra hartuz gero (242,10). Egun baterako kiroldegira joan gura duenak, berriz, 5,35 euro ordaindu beharko ditu.

BERGARAN IGOERARIK EZ

Bergarako Udalak aurreikusten du irailerrako gertu egongo dela kiroldegi berria, eta orduan ezarriko dituzte tarifa berriak, igoerak. Orain, 18 urtetik gorako-



Arrasateko kiroldegia igo ditu gehien prezioak Debagoiengan.

ek 71 euro ordainduko dute abonua eta 99,60 euro balioko du abonua familiarra. Horrekin batera, egun baterako sarrerak 3,75 euro balio du. Jakin, baina, abonua horiek irailera arte balioko dutela; ez dira urte osokoak.

Arrasateko kiroldegian %7ko igoera eta Bergaran prezioak berdin, kiroldegi berria egin arte

Arrasate eta Bergara dira aurreko bi aldeak, eta tartean daude ibarreko gainontzeko kiroldegiak, gutxi gorabehera %3,4ko igoerarekin.

TXARTEL BATERATUA, GARESTIAGOA

Debagoieneko edozein kirol etxe erabiltzeko txartelak, berriz, KPIren araberrako igoera baino handiagoa izango du, Arrasateko kiroldegiko prezioen gorakadak eraginda. Lehen ere esan dugu kontuan hartu behar dela kiroldegi guztiak ez dutela zerbitzu bera eskaintzen.


Kirolabur

ARRASATE/'PITXI' HERRERORI OMENALDIA

Arrasate Eskubaloitza Taldeak omenaldia egingo dio taldeko entrenatzaile izan zen *Pitxi* Herrero zenari. Horretarako, Asobal Ligako bi talde ekarriko dituzte bihar Iturripera (18:15): Arrate eta Bidasoa Irun. Europako Txapelketa dela-eta, Asobal Liga gelditu dago, eta bi talde horiek lagunartekoa jokatu dute Iturriperen.

ANTZUOLA/GURUTZ LARREA AMATEUR MAILAN

Junior mailatik amateur mailarako jauzia egingo du Larreak denboraldi berrian. Jon Bikendi eta Iker Amutxastegi izango ditu entrenatzaile berriak Azpiru taldean. Antzuolako txirindulariak azaroan ekin zuten entrenamenduei; talde berriarekin, berriz, aurreko astean hasi zen entrenatzen, Urnietan.



Aimarrek eta Xalal osasun arazoak atzean utzita jokatu dute Bergaran

Osasun arazoetatik errekueratuta, lehenengo norgehiagoka galduta eta aukeratutako materialarekin pozik; halaxe aurkeztuko dira domekan Fernando Goñi eta Xala batetik, eta Zearra eta Aimar Olaizola bestetik, Bergaran. Asegarceko bikoteak pilota arinagoak aukeratu zituen eguaztenean, baina laurak azpimarratu zuten pilota politikak daudela saskian.

Aurrezki Gorakorra EUSKADIKO KUTXA

Bide berria zure aurrezkientzat, gora eta gora egin dezaten

R.B.E. n.º: 4557/05

%2,92
UTB

5 URTERAKO GORDAILUA
3.000 EUROTIK GORAKO ERABILGARRIA

Bosgarren urtean %5,00*
Laugarren urtean %3,00
Hirugarren urtean %2,75
Bigarren urtean %2,50
Lehen urtean %2,25

Bezere bakoitzeko gehienez 30.000 euro • Lehen hiru urteetan dirua ateratzen bada, interesa %1 murriztuko da, ez ordea gainerako urteetan • Eskudirutan edo beste entitate batzuen txeekean bidez egindako inbertsioaren kopuruko diru-sarrerarako baino ez du balio • Interesak gordailua mugaeguneratutakoan likidatuko dira, urtero kapitalizatu gabe Kapital higigarrien errendimenduz hartuko dira interesak eta %15eko atxikipena izango dute; EAEn interes gordinen %50aren gainean aplikatuko da %15eko atxikipen hori eta Nafarroan interes gordinen %60aren gainean Eskaintzak 36 milioi eurora iritsi arte edo 2006ko otsailaren 10era arte iraungo du • Euskadiko Kutxak konpromisoa hartzen du, eragiketa formalizatutakoan, bezeroari 15 eguneko epea emateko, nahi badu eragiketa bertan behera uzteko • Eskaintza hau EAerako eta Nafarroarako da

* %4,00 + %1,00 mugaegunera arte eusten zaien gordailuei aplikatuko zaie.

Zurekin elkarlanean CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Mendigoia Hotel berria

ESKAINITZA BEREZIA URTARRILEAN

Gela bikoitza: 50 euro*
Banako gela: 60 euro*
Suitea: 110 euro*

*Gosaria prezioaren barruan
Prezio guztiei BEZa gehitu behar zaie.



Torrebaso industrialdea 8
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 57 00
Faxa: 943 71 54 10
E-posta:
reservas@hotelmendigoia.com



RKUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

RKUZ
MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Betiko sukaldearekin asper-asper eginda?
Har ezazu errezeta!
Arkauz etxean ideia berriak emango dizkizugu.

Arkauz zure etxea da.

FAGOR banatzaile ofiziala

Goienka2a

Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 13a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren
13tik 20ra



MUTED Sarean diskoa atera dute. Kontzertuetan buru-belarri dihardute orain.



POTEMKIN Ia gertu dute estreinaldia: diskoa eta webgunea aurkeztuko dituzte .



SHARON STONER Diskoa aterako dute laster.

DANBAKAKO TALDEAK GAUR EGUN DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAKO FINALISTEK URTE OPAROA IZAN DUTE

Joan den urtarrilean bukatu zen Danbaka, Debagoieneko I. Musika Lehiaketa, Goienak antolatuta. Sharon Stoner, Potemkin eta Muted taldeek jokatu zuten final bero-beroa, emozioz betetakoa. Sharon Stonerrek irabazi zuen, eta diskoa grabatu zuen horri esker. Hala ere, beste finalistek, eta parte hartu zuten talde askok ere, nork bere saria jaso du urtebete honetan: batzuek, disko grabaketa moduan; beste batzuek, gero eta kontzertu gehiago egiteko aukera moduan. Taldeek eurek esaten dute Danbakari esker euren musika hedatzeko aukera izan dutela.

Hala, finalera iritsi ziren hiru taldeen nondik norakoen berri jaso du GOIENKARIAK.

ARRAKASTARI JARRAITUZ...

Arrakasta handia izan zen Danbaka lehiaketa: entzule asko joan ziren Espaloia antzokiko kontzertuetara, eta diskoetxeetako eta Euskal Herriko musika munduko jendeak Debagoieneko taldeen berri jaso zuen. Hori ikusita, Goienak bigarren aldiz antolatzea erabaki du. Udazken partean egingo du deialdia. /14-15

LEIRE KORTABARRIA

MUSIKA/ DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAREN ONDORIOAK

Finalistak, urtebete igaro eta gero

SHARON STONER, POTEKIN ETA MUTED TALDEEK, DANBAKA LEHIAKETAKO FINALISTEK, EUREN EMAITZEN BERRI EMAN DIGUTE

LEIRE KORTABARRIA

Orain urtebete bukatu zen Danbaka musika lehiaketaren lehen edizioa, eta momentu ona da ondorioak gainbegiratzeko. Sharon Stoner (irabazlea), Potemkin eta Muted izan ziren finalistak, eta disko bana egin dute. Aurten, beste talde batzuek izango dute aukera hori.

Debagoieneko musika taldeei aukerak emateko sortu zuen Goienak Danbaka, Debagoieneko Musika Lehiaketa. Urtebete pasa da finala jokatu zenetik. Horra hiru talde iritsi ziren: Sharon Stoner eta Potemkin (Oñati) eta Muted (Arrasate-Abadiño). Hirurek oroitzapen onak dituzte esperientzia hartatik, eta ondorioak ere bistan dira: disko bana grabatu dute eta euren musika Debagoienetik kanpo ezagutarazteko aukera izan dute. Besteak beste, Muted taldeak dioskunez, finalean bertan egin

zuten Oihuka diskoetxearekin lehenengo harremana, eta horren emaitza da euren lehenengo diskoa. Goienak dioenez, "ahalegin berezia egin zen lehiaketara, eta batez ere finalera, diskoetxeetako ahalik eta jende gehien eramateko", taldeen berri jaso zezaten.

Finalistez gain, lehiaketan jo zuten taldeek ere jotzeko aukera gehiago izan dute. Izan ere, Goienak eskaera asko jasotzen ditu oraindik taldeekin harremana egin gura dutenen aldetik. Bestalde, entzuleen harrera ere ezin hobea izan zen Espaloian egin ziren kontzertuetan, eta www.goiena.net/danbaka webgunetik taldeen MP3-ak jaisten jarraitzen du jendeak.

BIGARRENA

Aurten, Debagoieneko beste talde batzuek izango dute aukera. Izan ere, orduko arrakasta ikusita, Danbakaren bigarren edizioa egiteko asmotan dabil Goiena. Udazkenean hasiko da.

SHARON STONER

"Orain guri deitzen digute inon jotzeko"

Sharon Stoner hirukote oñatiarrak irabazi zuen Danbakako lehen edizioa. Sari moduan, diskoa grabatu zuten iaz Shot! estudioan. Disko hori datozen hilabeteotan kaleratuko dute; bitartean, abesti berriak egiten ari dira, eta kontzertuak egiten: hurrengoa, bihar, zapatua, Lazkaon dute. Bestetik, webgunea ere badute: www.sharonstoner.com.

Lehiaketak eragina izan du: "Lehen gu mugitu behar ginelako nonbait jotzeko, eta orain guri deitzen digutela", dioskute. Euren stoner estiloa hemen jende gehiagok ezagutzeko ere balio izan die Iñigo, Mikel eta Egoitzi.

POTEKIN

"Kontzertu asko egiteko lagundu digu lehiaketak"

Potemkin talde oñatiarrak (Aixibar, Iker, Joxe Mari eta Iban) ibilbide polita egin du: debut diskoari azken ukituak ematen ari dira, eta aurten aterako dute: 12 abesti eta intro bat izango ditu. Horrekin batera aurkeztuko dute taldearen webgunea; orain, hori prestatzen ari dira.

Danbakan parte hartzeak on egin ziela diote: "Lehiaketak lagundu digu, batez ere, kontzertu asko egiteko eta taldea aurrera eramateko", diote. Euren burua ere ezagutarazi dute: hala, *Entzun!* musika aldizkariaren euskal klip bildumarako aukeratu zuten *Infernuan* bideo-klipa.

MUTED

"Han egin genuen diskoetxearekin harremana"

Nu-metal estiloa ekarri zuen Danbakara Muted taldeak (Edu, Dani, Christophe, Ruben, Ander eta Pitxi), eta Debagoieneko entzuleekin pozik daudela diote, lehen Bizkaian ziren-eta ezagunen. Lehiaketaz, hauxe diote taldekoek: "Oso pozik gaude; izan ere, lehiaketaren bidez egin genuen harremana Oihukako Ritxi Aizpururekin, eta hortik etorri da *Sarean* diskoa". *Gaua* abestiak 12 aste egin ditu Euskadi Gazteko zerrendan, goiko postuetan.

Debagoienean orain gutxi jo zuten, Arrasaten, eta esaten dute gustatuko litzaiekeela berriro hemen jotzea.

BEN LEE

musikari australiarraren kontzertua

MUSIKA

Non:
Arrasateko Amaia Antzokian.**Noiz:**
Urtarrilaren 14an, larunbatean, 20:00etan.**Prezioa:**
10 euro.

Sarrera salmenta	
	SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
kutxa	943 00 12 00
	www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Taldeen erakusleihoa

Finalera hiru talde bakarrik iritsi ziren, baina Danbaka parte hartu zuten beste talde askorendako erakusleihoa izan zela bistan da: horietako asko gero eta gehiago entzun izan ditugu orduz geroztik, Debagoianean eta baita kanpoan ere.

Besteak beste, urte osoan hainbat kontzertu eman dituzte Malenkoniak, Matxurak, Jim TNT bakarlariak... Diskoak ere agertzen joan dira: Enboskadak, Entzuleen Sariaren irabazleak, Never Surrender taldearekin CDA grabatu zuen, eta lehen astean agortu zen tirada; Jim TNTk Shot! estudioan grabatu du, eta Cretinos taldea grabatzen ari da...

Bakarkako diskoez gain, taldeko diskoak daude: Oñatiko talde gehienek batera diskoa argitaratuko dute aurten.

Lehiaketa eta webgunea

Goienak bere egunean erabaki zuen Danbaka lehiaketa urtero ez egitea, taldeak ez erretzeko eta euren jardunean eta entsegutan ibiltzeko denbora emateko; eta horrelako lehiaketa bat antolatzea ere lana delako. Horrenbestez, urtebeteko atsedeenaren ondoren, aurten II. Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketa izango da. "Aurrekoaren oso antzekoa izango da, berritasun eta hobekuntza batzuekin", diote arduradunek. Deialdia uda ostean egingo da.

Bestetik, Danbakaren gaineko webgunea antolatzen ari da Goiena. Taldeen intereserako albisteez gain, taldeek eurek berriak edo deialdiak egiteko aukera izango dute, edo euren webgune propioa egiteko ere.

Sharon Stoner Oñatiko taldeak irabazi zuen Danbakako lehen edizioa.

GOIENKARIA



GRUPO **RKUZ**
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

RKUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE **MOBEL**
ALTZARIEN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

RKUZ
MUEBLAS
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Hotzak zaude etxeko altzarien prezioekin?
Har ezazu lasai!
Arkauz etxean bero-bero hartuko zaitugu.

Arkauz zure etxea da.

Urtarrilak 13-20

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

MUSIKA

ARRASATE

► **Honako kontzertuak** antolatatu ditu 3.60 aretoak: Dikers (bihar, zapatua, 23:00etan), eta Baron Rojo (hilaren 20an, egubakoitza, 23:00etan; sarrera kopuru mugatua dago, eta 15 eurotan salduko dituzte).

► **Gaztetxean** honako kontzertuak egongo dira: Lor eta Kasu (gaur, egubakoitza, 22:30) eta Piztiak (bihar, zapatua, 22:30).

► **Ben Lee** musikariak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Euskadin emango duen kontzertu bakarra izango da. Sarrerak erosteko aukera dago www.kutxa.net webgunean, Kutxako kutxazainetan edo Amaia antzokiko leihatilan.

BERGARA

► **Txapa Jaia** izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean: Nuevo Catecismo Católico, Sarri's R'N'R Trio eta The Fucked Frikis taldeek joko dute; gero DJ Mansillak r&r gaua girotuko du.

ESKORIATZA

► **Benito Lertxundi** kantautoreak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, kiroldegian, 22:30ean. Abenduan bertan behera geratu zen, eta gaur izango da emanaldia. Sarrerak salgai daude honako lekuetan: Mirentxu tabernan, Adeli liburutegian eta kiroldegian; eta Arrasateko Montte tabernan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Aratusteetako kartel lehiaketa** deitu du udalak, eta edozeinendako dago zabalik. 50 x 70 cm-ko kartelak eskatzen dituzte, bertikalak, honako testuarekin: *2006 Inauteriak Arrasate*. 400 euroko saria dago jokoan. Mugaeguna otsailaren 3a da.

BERGARA

► **IV. SMS bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak, eta hilaren 15a da mezuak bidaltzeko mugaeguna, 605 71 24 69 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com helbidera.

► **Aratusteetako kartela** aukeratzeko lehiaketa deitu du Bergarako udalak, Bergaran bizi edo erroldatuta dagoen edozeinendako. Kolore eta teknika librea egindako kartelak izango dira, hori bai, 50 x 35 cm-ko kartoizko oinarrian, eta *Aratusteak 2006, Bergara* testuarekin. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Otsailaren 3a da mugaeguna.

DEBAGOIENA

► **Bakarrizketa barregarrien lehiaketa** deitu du Debagune elkarteak, eta otsailaren 28ra bitartean dago lanak bidaltzeko aukera, honako helbidera: Errotalde jauregia, z/g; 20570, Bergara; edo kulturajardun@topagunea.com. Lanak lelo sistema bidez aurkeztu behar dira.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Kanuto Deunaren eguna** ospatuko dute hilaren 21ean, zapatua; besteak beste, bazkaria egingo dute, eta txartelak salgai daude Azkena, Ezkutu eta Urbaltzen (15 euro). Ospakizunak 12:00etan hasiko dira bolo txapelketarekin; gero, orkestrarekin dantzaldia, hipnotizatzailea, dantza erakustaldia, kalejira, kontzertua eta DJ jaia ere izango dituzte.

BERGARA

► **Txapligu eta Txiskrilabi** taldeetan parte hartzeko aukera dago berriz bihar, zapatua, hasita. Arrizuriagako lokaletan batzen dira. Orduetgia: Txapligu, 16:00-20:00; Txiskrilabi: 16:00-18:00.

DEBAGOIENA

► **1976an jaio eta Almenen ikasi zutenei** dei egiten diete hilaren 21ean, zapatua, elkartzeko. Arbolapetan batuko dira, 19:00etan. Besteak besete, Amagoia Unanue, Juan Pedro Otadui, Eider Zumalde, Larraitx Uribesalgo, Ekaitz Uribe

eta abarrekin ikasitakoak batuko dira. Helburua dute poteo erraldoia.

► **Mihiluze delako lehiaketa** hasiko da ETB1en, eta 18 urtetik gorako lehiakide umoretsuak, berritsuak eta drogoak behar dituzte. Argibideak: 943 01 17 84 edo mihiluze@eitb.com.

ELGETA

► **Torrealdeko babestutako etxeetan** izena emateko epea zabalik dago hil osoan. Zozketa maiatz edo ekainean egingo dute. Izena emateko baldintzak jakiteko, udaletxera edo www.elgeta.org webgunera jo-

ESKORIATZA

► **Tranbiaren gaineko erakusketa** dago kultura etxean hilaren 18ra bitartean. Besteak beste, tranbiaren ibilbidearen trazatua eta geltokiak ikusiko dira. Hauxe da orduetgia: astegunetan, 10:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatu eta domeketan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

OÑATI

► **Debagoieneko tranbiaren gaineko** erakusketa dago udaletxeko

areto nagusian hilaren 23ra arte. Orduetgia hauxe da: astegunetan, 09:00-13:00 eta 18:00-20:00. Aipatutakoa da alegazioak ipintzeko mugaeguna ere.

► **Familia barruko komunikazio nerabeak daudenean** izeneko hitzaldia izango da hilaren 19an, eguna, Elkar Hezi ikastetxean (Santa Marinako eraikineko mediatekan), 18:30ean. Eraberri taldeak emango du.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Patinaje ikastaroa** hasiko da hilaren 21ean, eta izena emateko aukera dago hilaren 18ra arte. 16 urtetik gorakoendako ikastaroa da, eta zazpi zapatutan emango dute.

ARRASATE

► **Sanatana Dharma yoga** eskolak ikastaroak ematen ditu honako egunetan: astelehen eta eguaztenetan, 09:30-11:00 (Maite da arduraduna, 635 71 06 16), eta martitzen eta eguaztenetan,

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Capellan - Auxkin / Del Rey - Apeztegia

Olaizola II.a - Zearra / Xala - Goñi III.a


Baleztena - Urberuaga / Larralde - Zubieta



aspepelota.com

- **Eguna:** igandea, urtarrilaren 15a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udala Pilotalekuan.

Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com



► IKUSKIZUNA

'OTEHITZARI BIRAKA', IKUSKIZUN GOMENDAGARRIA ELGETAN

Lehen ere izan dira Kukai eta Ttanttaka taldekoak Debagoienean *Otehitzari Biraka* ikuskizunarekin. Orduan ikusteko aukera izan ez zutenek hilaren 20an, egubakoitza, dute beste aukera bat, orangoan Elgetako Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Sarrerak erosteko modua ere badago, 10 eurotan Goibeko elkartearen bazkideendako eta 12 eurotan gainerakoendako. Ikuskizuna bera gomendagarria da Jorge Oteitzaren izaera, lana eta ondarearenganako interesa duten guztiendako: dantzak eta musikak borobiltzen dute saioa, baina ardatza Oteitza da, eta haren hitzak eta esanak jasotzen dira. Orioko artistaren izaera konstantea da ikuskizun osoan. Era berean, ikuskizuna denendako modukoa da, ulertzeko eta ikusteko erraza.

Non: Elgetako Espaloia antzokian. **Noiz:** hilaren 20an, egubakoitza, 22:30ean. **Sarrerak:** 12 euro, 10 bazkideendako.

HILDAKOAK

Sotero Arenaza Zugasti. Aretxabaletan, urtarrilaren 1ean. 82 urte.
Concepción García Del Ama. Arrasaten, urtarrilaren 2an. 78 urte.
Pablo Garai Iriarte. Arrasaten, urtarrilaren 2an. 87 urte.
Rafael Amosarrain Agirrebeitia. Arrasaten, 2an. 83 urte.
Juan Olabarria Agirre. Aramaion, urtarrilaren 3an. 86 urte.
Juana M. Urionabarrenetxea Agirre. Arrasaten, 3an. 78 urte.
Pedro M. Galdos Urtzelai. Oñatin, urtarrilaren 3an. 70 urte.
Ramon Valencia Esteban. Bergaran, urtarrilaren 3an. 74 urte.
Jose Manuel Uriarte Barberán. Arrasaten, 4an. 60 urte.
Nieves Ibarrola Albeniz. Bergaran, urtarrilaren 4an. 95 urte.
Agustin Zugasti Legorburu. Aretxabaletan, 5ean. 82 urte.
Felisa Aldekoa Larrañaga. Bergaran, urtarrilaren 5ean. 83 urte.

MEZA

Maria Esther Leiza Zenarruzabeitia

Bedian hil zen 2005eko abenduaren 25ean.

Haren arimaren aldeko meza eguaztenean,
urtarrilaren 18an, 19:00etan,
Uribarriko parrokian.

*Zu ezagutzea izan da
biziak eman digun oparia,
gure artean egongo zara beti*



Zure lagunak.

URTEURRENA

Raul Calvo Zulaika

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Agapita Leturiaga Ariznabarreta

Timoteo Altunaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Natividad Jauregi Belar

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Esteban Zubizarreta Letona

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:00etan, Eskoriatzako
San Pedro parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Santos Briz Lopez

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Nieves Imaz Bastarrika

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Josefa Perez Perez

Eleuterio Elgueroaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Miguel Gonzalez Diez

Gloria Ortegaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 15ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Juliana Idigoras Badiola

Gasteizcn hil zen 2006ko urtarrilaren 2an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2006ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Nieves Ibarrola Albeniz

Julian Zabalaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko urtarrilaren 4an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Pablo Garai Iriarte

Arrasaten hil zen 2006ko urtarrilaren 2an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Jabier Lazkano Lonbide

Lizarragabengoan hil zen 2005eko abenduaren 25ean, 67 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Manu Uriarte Barberan

Arrasaten hil zen 2006ko urtarrilaren 4an, 60 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko urtarrilaren 13an.



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Drainatze linfatikoa

Josuneri erantzuna:

DRAINATZE LINFATIKOA zer den jakin nahiko nuke, zertarako den ona eta zein emaitza ematen dituen. Liposukzioa egin behar didate, eta medikuak esan dit zortzi egun pasatzen direnean **DRAINATZE LINFATIKOKO** zortzi-hamar saio hartu behar ditudala. Kontua da ez didala aipatu zergatik eta zertarako hartu behar ditudan saio horiek.



Drainatze linfatikoak hainbat gaitz sendatzeko balio du.

Medikuak ez dizu esan zertarako den **DRAINATZE LINFATIKOA** eta zuk ez diozu galdetu; niri ez dit ardura zure drainatze linfatikoa zer den azaltzea, **baina liposukzioa edo halako gauza garrantzitsuren bat egitera zoazenean** galdetu egin behar duzu zein izango den ebakuntzaren aurreko eta osteko prozesua. Ziur nago medikuak uste duela badakizula zer den **DRAINATZE LINFATIKOA**.

Liposukzioa egin ondoren oso normala da ehunak puztea (handitzea), **ebakuntza sabelean bada mokorrera ere eragiten du.** Anestesiaren ondorioz ondorengoak irteten dira: ehunak puztu, kapilar txikiak eta atera behar diren koipe zelulak apurtzearen ondorioz hematoma, eta xurgatzea kosta egiten diren hondarrak. **DRAINATZE LINFATIKOAK** ondorengo egiten du: hondar guztiak garbitu eta **ganglio linfatikoetara** eraman bertan deuseztatzeko. **Horrela lehenago sendatzen da, DRAINATZE LINFATIKORik**

gabe luzeagoa izango zen prozesua. Aldi berean, **DRAINATZE LINFATIKOAK** orbainak lehenago osatzen laguntzen du.

Zirujauak ESKUZKO DRAINATZE LINFATIKO saio batzuk egitea gomendatzen dute ondorengo ebaketak egin ondoren: kirurgia estetikoak, plastikoak/konpontzailea,

Gure organismoan hondakinak jasotzen dituena linfa da (gehienbat zainek eraman ezin dezaketena); aktibatze motorrik ez daukanez oso garrantzitsua da **DRAINATZE LINFATIKO on bat.**

ESKUZKO DRAINATZE LINFATIKOA ondorengoetarako gomendatzen da: estresaren aurkako tratamenduetarako, hanka nekatuendako, likidoen erretentzioetarako eta edozein kirurgia estetikorako.

Medikuak esango du saioekin noiz hasi eta zenbat saio izango diren.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	*Izena	Onomato-peia	Guztiz txikia dena
	Onespena adierazteko	Zintzarri	
	Ongi finkatu gabe		
	Ubel, odolbildu		
Alabaina, izan ere	Burdinola	Nitrogenoa	
Goresmen	Uholde-ur	Iztondo	
Aurpegiaren atal		Ukatzeko	Mila zenbaki erromatarrez
Zati, puska		*Deitura	
		Tulioaren ikurra	
		Zurezko ontzia	
Hiriburu nafarra			Basamortuko berdegunea
... egin, erabat ase			
	Elementu kimikoa		
	Janari multzo		
Biharamuna	Mirespena	Anperea	
	Joka, jotzen	Garoa, iratzea	
		Kolore izena	
		Galioaren ikurra	
Ongailu			
Beldur bizia			
		Bokal errepikatuta	

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



CHIRACEN BELDURRAK

Presidentziarako hauteskundearen lehen itzulian jasotako emaitza txarren ondoren Chirac lur jota ibili zen. Bigarren itzulian Le Peni ateratako aldeak ez zion kontsolamendu handirik ekarri eta loa galarazten zion aztoramendua sosegatu ezinik zebilen egunetan. Garbi zegoen: herriak ez zuen Chirac maite.

Herriak benetan berari buruz zer pentsatzen zuen jakin nahian, gau batez, autoa hartu eta Parisko kaleetara irteten zen. Bastille inguruan garbitzaile bat ikusi eta:

- Aizu!
- Gabon! Presidente jauna!
- aurrean nor zuen sinistu ezinik.

- Gabon! Utzi zurikeriak alde batera eta esadazu benetan jendeak zer uste duen nitaz. Ez baitirudi jendeak maite nauenik.

- Baina, baina... nola esan dezake horrelakorik, presidente jauna?

- Zer jauna eta zer jaunondo! Agidanez, herritar gustura asko akabatuko ninduke.

- Ez dut sekula horrelakorik entzun!

- Are gehiago, batzuk-batzuk nire hilobia profanatzeko asmoa omen dute!

Langilea isilik.

- Zer esan nahi du isiltasun horrek? Zu prest al zeundeke nire hilobia profanatzeko?


- Ez dut uste!

- (Lasaitu hasperena) Eta zergatik?

- Ez dudalako batere maite ilaretan luzaro itxarotea!

SOLUZIOAK

V	V	A	•	V	U	Z	I
I	R	A	R	G	N	O	•
S	I	R	G	•	E	J	A
A	•	A	R	I	M	•	•
O	I	D	O	R	•	K	O
•	V	E	N	U	R	I	•
M	T	•	A	L	A	T	A
•	Z	E	•	O	H	V	•
O	I	R	O	D	U	L	A
N	•	A	L	O	•	H	•
A	K	O	L	•			
N	O	J	E	B			
•	T	•	P	•			



Urtarrilaren 16a: 071 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, urtarrilak 16, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Urtarrilaren 16ko sariak



- **ECRON** disk-man bat.
- Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

EIBAR-EJIDO

futbol partidua
ikusteko
sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)



BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara arte.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

070
zozketa

saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

CANON

argazki-kamera bat.

- Ramon Loiti
Garitaonandia
(Arrasate)



Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Pedro Mari Iturbe Arenaza (Aretxabaleta)
- Iñaki Alberdi Bruña (Bergara)

GOITBERRIAK

'16 mm' saioa Goierri Telebistan eta Ttipi Ttapan ikusiko dute

Urtarriletik aurrera 16 mm film laburren saioa Nafarroako Ttipi Ttapa telebistako eta Goierri Telebistako ikus-entzuleek ikusteko aukera izango dute. Amagoia Lasagabasterrek eta Josu Txintxurretak zuzendu eta ekoiztutako saioak arrakasta polita izan du gure ibarrean. Goierri eta Baztanen ere arrakasta izatea espero da.








Euskal Herria Oinez proiektuaren grabazioak asteon

Euskal Herriko tontorrak, basoak, gezi-bideak eta harkaitzik ezkutuenak grabatzen ari da Goienako lantalde bat. Kontua da Euskal Herria Oinez proiekturako zenbait kapitulu grabatzen ari direla Euskal Herriko bazter ederrenetan. Oraingo astean Aizkorriko igoera grabatu dute eta Kurtzebarri mendian ere egon dira.

'Debarri' saioa otsailaren bigarren astean itzuliko da

Alberto Gorritibereak zuzentzen duen *Debarri* saioa otsailean itzuliko da Goiena Telebistara. Hamar programa egingo dira: aurreneko bederatzietan ibarreko herrieta-ko alkateak izango dira protagonistak, eta hamargarrenean, Debagoiene-ko Mankomunitateko kudeatzailea. 30 minutuko bi parte izango ditu, eta hainbat berrikuntza.

GOITBPROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA, 13	ZAPATUA, 14	DOMEKA, 15	ASTELEHENA, 16	MARTITZENA, 17	EGUAZTENA, 18	EGUENA, 19
 Tabakoaren Aurkako Legea aztergai 21:15 Gure ibarreko taberna, jatetxe, enpresa eta pilotalekuan Tabakoaren Aurkako Legeak izandako eragina aztergai.	 Harkaitz Cano idazleari elkarrizketa 11:30 Gidabaimenik ez du, ezta sakelako telefonorik ere. Horrelakoak kontaktuko dizkigu Harkaitz Cano idazleak <i>Ilunpean</i> -en.	 'Eltze beroa' saioa barazki-zaleentzat 12:30 Barazkiak prestatzeko aukera asko daude eta horien berri emango digute gure sukaldariek. Oraingoan, <i>foie</i> -rekin prestatuko dituzte.	 Futbola nagusi 'Harmailatik' saioan 21:15 UDA taldeak etxean jokatuko du oraingo asteburuan, eta partiduaren laburpena <i>Harmailatik</i> kirol saioan eskainiko dute.	 Imanol Espositok Islandian egindako bidaia 21:15 <i>Munduari bueltaka</i> saioan, Imanol Espositok Islandiako inguru ederretan barrena egindako bidaia ikusteko aukera izango dugu.	 Elorri zuria, sendabelarren tartean 15:35 Sendabelarretan aditu Alberto Altube gatzagarrak elorri zuria izango du hizpide. Haren ezaugarrien berri emango digu.	 Ibarreko eta Euskal Herriko aktualitatea 23:00 Marijo Deograsiasek zuzentzen eta aurkezten duen <i>Berbaire</i> saioan, ibarreko aktualitatea izango da mintzagai.
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo: Tabakoaren Aurkako Legea 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.	07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean: Harkaitz Cano 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:45 Didjeridu. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 MKT. 15:45 Ikuskizuna: Benito Lertxundi 16:45 Danbaka. 17:00 Erreportajea: Loizu hiltegia 17:30 Marrazki bizidunak. Bilduma 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo: Tabakoaren Aurkako Legea aztergai zenbait gonbidaturekin. 20:30 Zera dio eta Motzean: Mikel Etxagibel eta Arnaldo Otegi. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berbaire: 22:15 Elkartasun bideak. 22:45 16 mm. 23:15 Emisio amaiera.	07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. Barazkiak <i>foie</i> -rekin. 12:45 Erreportajea. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetxurretik. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Ikuskizuna. 16:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 18:45 Klipak. Musika bilduma. 19:15 Iparrorratza: Pakistan Damaso Gallastegirekin 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean: Harkaitz Cano 21:00 Didjeridu. 21:30 16 mm. 22:00 Berbaire. Ibarreko aktualitatea aztergai. 22:30 Didjeridu. 22:30 Teknopolis: erreportaje saioa. 23:00 Emisio amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltaka: Islandia Imanol Espositorekin 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:00 M1. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia: All Foster. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: 18:15 Munduari bueltaka: Islandia Imanol Espositorekin 18:45 Albisteak 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Ilunpean: Harkaitz Cano. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean: Miguel Etxagibel eta Arnaldo Otegi. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm. 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparrorratza: Pakistan. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Jaun ta jabe. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

TELEBEGI/Oihana Elortza

Carbonell

Pablo. Gustatzen zitzaizkidan *CQC* saioan egiten zituen bideoak. Ero ukitu bat zutela iruditzen zitzaidan. Egunkarietan irakurri nuen Pablo Carbonell Cuatro telebista kate berrian ikusiko genuela. Eta ikusi dut. Erreportajea programa batean ikusi dut, behin bakarrik oraindik, egia esan, ez dut askotan telebista ikusten eta; parean tokatu zitzaidan. Kaleko zaborraren hiru ikuspegi ezberdin erakusten zuen programan ikusi nuen. Ikaragarri gustatu zitzaidan. Errealizazio polita zuen eta erraz ikusten zen. Hiru kazetari zeuden kalean: eguneko jatekoa kaleko zabor poltsetan bilatzen zuen gizon batekin zegoen kazetari bat, zabor biltzaileekin beste bat eta kartoia batzen zuenarekin hirugarrena, Pablo Carbonell. Lehen baino serioago ikusi nuen, baina gustatu zitzaidan bera ere. *Zapping*-ean bera ikusi nuelako gelditu nintzen erreportajea ikusten eta izugarri gustatu zitzaidan. Ez naiz, ordea, programaren izenarekin gogoratzen eta pena dut. Hurrengo *zapping*-ean harrapatuko dut, agian.

Harkaitz Cano idazleari elkarrizketa 'Ilunpean'-en

ILUNPEAN:

Egubakoitzean, urtarrilaren 13an, 22:15ean Aurkezlea: Oihana Elortza

Harkaitz Cano: "Gidatzeko karnetik ez dut, ezta sakelako telefonorik ere"



Ikustekoa!

Prestatu^{GURE} merkealdian

Oinetakoak, moda, osagarriak... jar zaitez eroso,
eta zatoz merkealdi hornituenaz goatzera.



22°
Temperatura



Asialdiko
eta jatetxeetako
eskaintza zabala



Aparkaleku
estalia



URTARRILAREN 7TIK AURRERA

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Kepa Dieguez/ Etnometeorologia

Etnometereologia zara benetan?

Euskara irakaslea naiz, baina eguraldiaren hiztegi bat egiten ari naiz aldi berean.

Eta etno-rena?

Hiztegiko hitzak Euskal Herri osoan batutakoak dira eta hiztegiaren ere jarri dut non eta noiz esaten dituzten hitz horiek. Eguraldiarekin lotutako esaera zaharrak eta lehengo ohiturak ere gustukoak ditut.

Noiz hasi zinen hiztegia egiten?

Orain 15 urte hasi nintzen berbak batzen. Datu basea sortu nuen lehenengo, eta dagoeneko 6.000 berba inguru ditut sartuta.

Etkez etxe joanda batu dituzu berba horiek?

Euskaltzaindiak bazuen material bat jasota: eguraldiaren 100 bat termino nola esaten diren Euskal Herriko hainbat herritan, hain zuzen ere. Bada, material hori guztia aztertu dut. Gehiena idatzita jaso dudaren arren, argi dago ahozotasunak duela garrantzia.

Debagoiengan ere ibili zarete berbak batzen?

Bai. Hiztegiaren, gainera, hitzaren ondoan jartzen dut non erabiltzen duten berba hori.

Gure eskualdeko zein berba sartu dituzu hiztegiaren, esaterako?

Batzuk aipatzearen: *berase*, hezetasun handia

dagoela adierazteko erabiltzen ei dute Arrasate eta Oñatin; otsaila esateko, *katail* erabil izan dute Arrasate eta Gernikan; eguzki-haizea esateko, *Elgetaixe* esaten dute Arrasaten, eta tximistargia edo oinaztua esateko, *iyestu*.

Bildutako materiala blog batean batu duzu.

Blogak ezagutu nituenean pentsatu nuen ideia ona izango zela nik bildutakoaren berri blog batean erakustea. Jendearen ekarpenak, hitz berriak, jasotzeko aukera emango zidan horrek.

Blog ilustratua da, gainera.

Saiatzen naiz idatzi dudana gaiarekin lotura duen edozein argazki edo ilustrazio sartzen: batzuk neuk egindakoak dira, eta beste batzuk, sarean aurkitutakoak, bai euskaraz baita latinez edo nederlanderaz ere.

Egiten diezu kasurik eguraldi iragarpenei?

Ni neu ez naiz meteorologoa, baina ikasi dut mapak interpretatzen, eta aztertzen ditut, bai.

Pello Zabalak lagundu ditu hiztegiarekin?

Ikaragarri daki Pellok eguraldiari buruz. Behin baino gehiagotan hitz egin dut harekin, eta badu hiztegiaren berri, bai.

Noiz kaleratuko duzu?

Gertu dago, eta martxo aldera argitaratuko dugula uste dut. EHKMEk kaleratuko du.

Metroa ala tranbia erabiltzen duzu Bilbon batetik bestera ibiltzeko?

Metroa. Tranbia turistarena egin gura dudanean bakarrik erabiltzen dut.

Zer erosi duzu beharpenetan?

Ezer ez, oraindik. Akaso otsailean joango naiz; orain izugarritzko jendetza dabil.

“Orain 15 urte hasi nintzen berbak batzen; 6.000 inguru ditut sartuta datu basean”

“Hezetasun handia dagoela esateko *berase* erabiltzen ei duzue Arrasate eta Oñatin; hori ere sartu dut hiztegiaren, adibidez”

“Eguraldiaren hiztegia gertu dago jada, eta EHKMEk kaleratuko du martxo aldera”

► Bilbo / 45 urte / Eguraldiaren hiztegia egin du

PIPERRAUTSA

Seuss

Urrin samar gelditzen da, baina ez dut aipatu gabe utzi nahi bergararren erakustaldia Bilboko Euskalduna jauregian, *Seussen mundua* musikarekin. Aspaldi ari dira ikuskizunak antolatzen eta, arian-arian, profesionalen mailara iritsi direla erakutsi zuten, gabonetako emankizunetan.

Oholtzakoari bakarrik erreparatuta, obra iruditu zitzaidan polita. Kontatzen den historia, txikien defentsan, oso da hunkigarria. Eta musika izan daiteke ohiko samarra, baina atsegina da, zalantza barik.


Ikuskizuna aparta eta harrigarria bihurtzen duena da bergararren lana. Lan bikaina, oro har, hemen azpimarratu nahi dut euskarazko moldaketa, oso ondo egokitua baitzegoen hizkuntza-aren soinua kantuen doinuari. Era berean, oso zainduak iruditu zitzaizkidan ikuskizunaren atal guztiak: jantziak, disfrazak, dekoratuak, argiztapena, koreografiak... dena zen goi mailakoa. Eta bikain aritu ziren kantari, dantzari eta musikariak, ilusio betean eta akats handirik egin gabe.

Orain galdera pareta. Non egon da Bergarako Udala herri osoa mugiarazi duen ekimena babesteko orduan? Eta noiz izango du Bergarak areto bat, herritarren gaitasunen parekoa?

Eta, amaitzeko, pena bat. Oraingo ez daukate lotuta beste emanaldirik. Hainbeste denbora prestatzen, lan eta eskola orduz kanpo, hain ibilbide laburrerako!

Begiak bustitzen dizkit bergararren eskuzabaltasunak.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51